



Zuzia

HATZIESIA APURTUZ, BIDEA ZABALDUZ

9. Zenbakia.

2022ko iraila.

BERRIAK



GORA EUSKO GUDARIAK!

JARKI antolakunde iraultzaileak abuztuan abiarazitako kanpaina komunikatibo baten ondoren, hainbat ekitaldi burutu ditu Gudari Egunaren harira. Lehenengo, irailaren 24an gauzatu zen, Hernaniko Gudarien plazan. Gainerakoak, irailaren 27an bertan gauzatu ziren Euskal Herriko

puntu ezberdinetan.

Ekitaldi hauen bitartez, antolakunde iraultzaileak gudariei omenaldia egiteaz gain, eurek burututako borrokaren zilegitasuna aldarrikatu eta, etsaiak saldu eta inposatu nahi duen errelatoa alboratuz, haien

oroitzapena ilunpetik atera eta denon bistara gogora ekartzea zuten helburu. Izan ere, Euskal Herri Langileari ezinezkoa zaio frantziar eta espainiar estatuek biolentziaren bitartez eraiki duten historia onartzea, zapaldu eta zapaltzaileek bizi duten errealitatea ez baita bera.

Gauzak horrela, ekitaldietan argi utzi zen gudarien borroka ez dela inolako antolakunde politikoren ondarea, Euskal Herri Langile osoarena baizik. Eta Euskal Herriak ez ditu ahaztuko bere askatasunaren alde inoiz, inon bizitza emandakoak, hamaika baitira Euskal Herri Langileak pairatzen dituen zapalkuntzari aurre egiteko borroka.

Horregatik, antolakunde iraultzaileak argi dauka ez dugula zertan ezkutatu eta, are gutxiago, lotsatu, gudarien borroka-

ren aldarrikapena zein borroka bera mugimendu iraultzaileak egunerokotasunean bere praktika politikoaren bitartez balioan jarri behar dituelarik.

Horretarako, antolakuntza ezinbesteko baldintza suertatzen da, Euskal Herriko langileok gorpuztutako eta zuzendutako alternatiba iraultzailean oinarritutako antolakuntza, alegia. Izan ere, egun ez dugu bakearen gailentzea bizi, estatuek inposatutako ordena baizik. Euskal Herria espainiar eta frantziar estatu kapitalistengatik azpi-

ratua, esplotatua eta jazarria da oraindik ere, errealitate hori zein gudarien askatasun grina eta eurek eramandako borroka ezin dituztelarik ezabatu.

Horrez gain, aipatzekoa da, Gasteizko JARKI antolakunde iraultzaileko taldeak irailaren 22an, Hernaniko ekitaldiaren harira Gasteizko gaztetxean antolatutako egitaraua, sasiaz ibilitako militante iraultzaile baten bizipenak jasotzen zituen hitzaldia antolatu zutelarik.



ESTROPADETAN EUSKAL HERRIAK AMNISTIA

Irailaren 11n ASKE-k manifestazioa burutu zuen Donostiako estropadetan. Manifestazioa ez zen usadioaren edota ohituraren inertziagatik antolatua izan, amnistiaren aldarria oraindik erdiate bidean dagoelako baizik.

Horrela, Donostiako kaleak zeharkatu eta Trinitate plazan bukatu zen manifestazioa eta gero, ASKE antolakundeak estatuek errepresioa arriskutsuak egiten zaizkion antolaketa forma

errotik moztu edota euren agerpena galarazteko tresna gisa baliatzen dutela salatu zen. Era berean, gogora ekarri zen Euskal Herriaren askatasunaren aldeko hautua egin duten pertsonen kontrako jazarpenak gaur egun oraindik ere bere horretan dirauela, baita mugimendu iraultzaileak pairatzen duen kriminalizazioa ere; hau estatu zapaltzaileek beraien nagusitasuna bermatzeko baliatzen duten estrategia errepre-

siboaren baitan kokatu zutelarik, militante politikoak kikildu edo desaktibatzeke helburuarekin. Gauzak horrela, ASKE-k estatuek Euskal Herriaren aurka aurrera daramaten errepresioaren kontra aurrerapausoak eman eta antolatzeko deia luzatu zuen, amnistia kokatuz Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntza gainditzeko eta amnistia gehiagorik behar ez izateko halabeharrezko baldintza gisa.



URRIAREN 12A ETA 22A MOBILIZAZIO EGUNAK

Urriaren 12an, ASKE-k mobilizazioak antolatu ditu Hego Euskal Herriko txoko ezberdinetan, Euskal Herria azpiratuta mantentzeko espainiar estatuak darrabiltzan instituzio ezberdinak (ejertzitza, indar polizialak, instituzio politikoak eta judizialak) jokatzaren papera azalarazteko eta hauen deuseztepana galdegiteko helburuarekin.

Horrela, Bizkaian, goizeko 11:00ean Mungiako txistulari plazatik abiatuta, martxa burutuko da Soietxe-ko kuartel militarera.

12:30ean Egiako epaitegitik abiatuko den Donostiako manifestazioak Loiolako kuartela izango du jomuga. Ordu berean, Gasteizko Brullerias-etik manifestazioa burutuko da gobernu zibilerantz. Bukatzeko, arratsaldeko 18:30ean Nabarreriatik abiatuko den mobilizazioak Iruñeko alde zaharreko kaleak hartuko ditu.

Bestalde, urriaren 22an, egitarau oparoa prestatu du ASKE-k Leitzan burutuko duen Amnistia egunari begira. Horrela, amnistia

hizpide izango duen mahai ingurua antolatu dute 12:30ean, herri aretoan, "Amnistia eta errepresioa, iraganetik gaurkotasunera" izenburuarekin. Hau bukatuta, herri bazkaria egongo da 14:30etik aurrera, Leitzako eskolan. Ondoren, amnistiaren aldarria Leitzako kaleetan zehar zabalduko da, 18:30ean frontoetik abiatuta burutuko den mobilizazioan. Gaueko 21:00etatik aurrera burutuko diren kontzertuek emango diote amaiera egunari.

ERASO FAXISTAK LEITZAN

Jada hiru dira azken hilabeteetan Leitzan emandako eraso faxistak. Lehenengoa, urtarrileko 5. Zuzian azaldutakoa, abenduarien 25ean eman zen, Maimur eta Olentzeroren amnistiaren aldeko zapia lapurtu zutenean. Gero, urtarrilaren 6an, Olentzeroren burua txikituta agertu zen. Bigarren erasoak Leitzako jaien testuinguruan eman zen. Bertan, abuztuaren 9an, jaiak hasi aurreko egunean, txosna baten

paretan "muerte a los terroristas" margoketa egin zuten, eta beste pareta baten aurka margo gorria jaurti. Erasoak haratago joan zen abuztuaren 15ean, jaien azken egunean. Izan ere, gau horretan, margoketaren azpian Leitzako bizilagun baten eta bere familiaren aurkako heriotza-mehatxuak agertu ziren. Hirugarren erasoak, berriz, irailaren 3an eman da. Oraingoan, Leitzako beste bizilagun baten

kotxean sinbologia jasotzen zuen nota arrazista utzi eta gurpilen zulaketa eginez. Azken bi erasoetan irmoa izan da Leitzako herriaren erantzuna, eraso bakoitza salatzeke ehunka pertsona bildu dituen kontzentrazioak burutu direlarik herriko plazan, "Faxismoari stop" lemapean.

HEZKUNTZA SISTEMEN FUNTZIOAZ



KLASE GATAZKA ETA BORROKA IDEOLOGIKOA

Klase gatazkaren garapenean zehar, zapaltzaileek hamaika bitarteko erabiltzen dituzte haien egoera mantentzeko eta zapalketan sakontzeko. Bertan kokatzen dira, esaterako, haien mesedeetara dauden indar militar eta polizialak, edota lan esparruko legedi kapitalista. Zapaltzaileek eskura dituzten bitarteko edo tresna batzuek langileon zuzeneko jazarpena eta esplotazioa bermatzen dute, baina badira klase gatazka ideien esparruan garatzeko erabiliak diren beste bitarteko ugari.

Jazarpen polizialaren bitartez zapalduen borrokatzeko gaitasuna murriztu eta borrokatzeko grina zanpatzen dituzten bitartean, esparru ideologikoan kokatutako bitartekoek inposatutako errealitatea onartzea dute helburu. Hau da, ideia eta argudio faltsuen bitartez esplotazioa eta zapalketa normalizatzea dute helburu. Egun, kapitalismoaren pean, funtzio hau, besteak beste, hedabideen bitartez edota hezkuntza sistemaren bitartez garatzen dute burgesek.

Bertatik jaiotzen da borroka ideologikoa burutu beharraren zergatia: langileon mundu ikuskeran presente dagoen kapitalismoaren eta nazio zapalkuntzaren normalizazioari aurre egin behar diogu, errealitatea den bezala azalduz eta argudioak mahaigaineratuz, ondorio gisa klase kontzientzia garatu eta antolakuntza sustatuz. Hortaz, borroka ideologiko iraultzailearen baitan kokatzen da egungo hezkuntza sistemaren analisiaren eta kritikaren beharra.

HEZKUNTZA FORMALAREN BILAKAERA

Oro har, helduek gazteei gizartean baliagarriak eta beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak transmititzea du helburu hezkuntzak. Antzinaroan funtzio hau ahoz gauzatzen zen, eta historian aurrera egin ahala eta gaitasun teknikoak garatu ahala, hezkuntzaren forma ugarietan gauzatu da.

Hala ere, ezin dugu hezkuntzaren izaera eta eboluzioa era isolatu batean ulertu, klase gatazka aintzat hartu gabe, alegia. Azken finean, hezkuntza baliabideen garapena hauen sortzaileen eta

kudeatzailearen interesen menpe egongo da. Adibidez, Europako mendebaldean, Erdi Aroan zehar, jakintza alfabetizatua mantendu zuen erakunde bakarra eliza katolikoa izan zen, jakintzaren difusioa guztiz baldintzatuz. Europako mendebaldetik kanpo ere, belaunaldi berrien hezkuntzan garrantzitsua izan da erlijio elkartearen eta erakundearen zeresana, mendeetan zehar, eta paper garrantzitsua izaten jarraitzen dute gaur egun ere gazteen sozializazioan eta hezkuntzan.

Estatu modernoaren garapenarekin batera, egun ezagutzen dugun hezkuntza sistema garatzen hasi zen Europako mendebaldean. Langileria klase bezala hedatua zegoen, feudalismotik kapitalismorako trantsizioa eremu askotan amaituta zegoen eta. Langileriaaren sektore zabal batek ez zuen aparteko hezkuntzarik behar soldatapeko lanean jaso zezakeen formakuntza zehatzaz haratago: kapitalismoaren hastapenetan haurren lana guztiz orokortua zegoen, eta, hortaz, hezkuntza ez zegoen orokortuta. Langile borrokaren garapenarekin, haurren lana mugatzen eta debekatzen joan zen heinean, hezkuntza sistema gero eta populazio zabalagoetara hedatu zuten estatuak pixkanaka, gaur egun estatu bakoitzeko haur orok derrigorrez burutu beharreko hezkuntza bilakatuz.

Hezkuntzaren hedapena eta garapena ulertzeko presente izan behar da kapitalaren inizatiba ere, bere interesei erantzuteko tresna gisa ulertu baitzuen hezkuntza sistema honen ezarpenetik. Ekoizpen indarren garapenarekin batera, langile espezializatuak nahi izan ditu burgesiak, lanaren banaketan txertatzeko helburuarekin. Horrela, alde

batetik, ekoizpen prozesuaren eraginkortasuna areagotzen zuen eta, bestetik, ekoizpenarekiko kontrola handitzen zuen, langile bakoitzak egiteko sinpleak burutzean ekoizpenarekiko ezagutza murriztagoa lortzen du eta.

Ondorioz, lanaren banaketarekin langile klasearen mendekotasuna areagotzen da, tartean langabeziaren mehatxua kokatzen delarik: lanpostu sinpleak izanda, langile aldaketa burutzea sinpleagoa suertatzen zaio jabeari. Prozesu honek hezkuntza sisteman eragina izan du azken hamarkadetan, besteak beste, hezkuntzan gero eta ezagutza espezializatuagoak eskainiz. Burgesiak ere sarrera zuzena egin du hezkuntza prozesuan, edozein kualifikazio mailako lan indarraren formakuntza hurbiletik kudeatzeko helburuarekin. Ondorioz, klase zapaltzaileak burututako hezkuntza formalaren sustapena ez dugu klase zapaltzailearen ontasunarekin harremandu behar, baizik eta ekoizpena aurrera eramateko eta irabaziak bermatzeko interesekin baizik.

HEZKUNTZA SISTEMEN EGITEKOAK ETA BITARTEKOAK

Esan bezala, hezkuntza sistema ez da esparru itxi eta autonomo bat. Estatu egitura batetik ipintzen da martxan egitura burokratiko eta pedagogiko osoa, gizartearen onuraren izenean. Euskal Herriaren kasuan, estatu egitura horiek estatu burges zapaltzaileak dira, espainiar estatuaren eta frantziar estatuaren mesedetara dauden hezkuntza sistemak garatuz. Oinarritzeko baldintza



"Estatu egitura batetik ipintzen da martxan egitura burokratiko eta pedagogiko osoa, gizartearen onuraren izenean."

honek eragin zuzena du gaur egun Euskal Herrian belaunaldi berri bakoitzak jasotzen duen Derrigorrezko Hezkuntzaren forman eta edukian. Hego Euskal Herrian Derrigorrezko Hezkuntza 16 urtera arte luzatzen da, eta Ipar Euskal Herrian 18 urtera arte.

Hezkuntza sistemaren egiteko nagusia da belaunaldi berrien adoktrinamenduaren bitartez egungo langileria asimilazio parametroetan birproduzitzea. Hau da, gizartean heldu gisa txertatuko diren gazteek gizartea dagoen moduan uztea bermatu behar du hezkuntza sistemak, ideia eta argudio zapaltzaileen hedapenaren bidez. Bestela esanda, langile klasearen seme-alabek Derrigorrezko Hezkuntzaren baitan errealitate soziala den bezala ezagutzea ekidin behar dute, klase kontzientzia garatu ez dezaten. Nazio zapalduen kasuan, Euskal Herrian, adibidez, hezkuntzaren bitartez nazio izaera ukatzea eta txikitik nazio zapaltzaileen nagusitasuna normalizatzea eta asimilatzea gehitzen zaio egiteko nagusiari.


Horretarako, estatu burgesetako hezkuntza sistemek mekanismo ugari erabiltzen dituzte ikasketetan zehar. Hauetako batzuk ezagutzaren edukiarekin dute harremana, beste batzuek, aldiz, harremanen izaerarekin.

- **Ezagutzaren azalpen faltsuak eta partzialak.**

Egoera hau gizartea aztertu eta ulertzeko orduan ematen da egungo hezkuntza sistemetan. Haurren herriko lan gatazkak jazotzean, polizien errepresio kasuak, nazioarteko harremanetako aferak azaltzean, historia erakustean... klase zapaltzailearen ikuspegia nagusitzen da irakasleen eta



eskuliburuen azalpenetan. Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean langile gisa lagungarriak diren ezagutza esparru ugari ez dira aipatu ere egiten hezkuntza sisteman. Adibidez, langileon oinarrizko eskubideak, gazteen gehiengoa baliabide erabilgarriak ezagutu gabe hasten da soldatapeko lanean, esplotazioa erraztuz eta langile klase kontzientzia sortzea zailduz.



- **Harreman zapaltzaileak.** Egungo hezkuntza sistemetan kapitalismoari komeni zaizkion harremanak eta jarrerak sustatzen dira, ikasleek etorkizunean soldatapeko esplotazioa onartu dezaten, lan eskua bermatuz. Bertan kokatzen da, adibidez, ikasleen arteko lehia sustatzea. Irakasteko metodologiaren eta ebaluazioen bidez, elkartasunaren ordez lehiakortasuna lehenesten da hezkuntza sistemetan. Esparru honetan kokatzen da irakasleekiko eta ebaluazioarekiko ikasleen sumisia ere. Haurrek autoritate publikoarekin duten lehenengo harremana da irakasleekiko dutena: haien egitekoak bete, motiborik gabe isilarazi, itxura ona mantendu beharra... Azken finean, trabarik gabe bizitzeko autoritateak esaten duena egitea komeni dela ikasten dugu, etorkizunean lanpostuan edota kaleko mobilizazioetan birproduzitzen dugun irakaspen latza, alegia. Horrela, nagusiari beldurra izatea eta lankideen artean lehia egotea naturala egiten zaigu helduak garenean lantokian, edota jarrera otzana izatea polizia baten aurrean trafiko kontrol errutinario batean.

ZER DIRA BORROKA MOLDEAK?



Borroka moldeak, era materialean gauzatzen den jardura mota bakoitza da. Hau da, borroka moldearen deritso eragile batek bere helburuak garatu eta erdiesteko burutzen dituen izaera taktikoko ekintza mota bakoitzari, plangintza bati soil egiten dietenak.

Edozein borroka molde aurrera eramaterako orduan eragileak bere buruaren gaitasunen inguruko balorazio bat egiteaz haratago, plangintzako helburuen erdiespenean eduki duen eragina eta ondorioen hausnarketa egiteko aukera ere eman behar du, behin borroka moldearen aplikazioa bukatutakoan.

Borroka molde bat denboran zehar errepika daitekeen ekintza mota da, une jakin batean egoera espezifiko bati erantzuteko baliabideak daitezkeen bitartekoa delarik, edota elkarren segidan zein aldi berean elkarerragina izateko eta elkar elikatzeko baliabideak daitezkeen. Haatik, borroka molde bat ezin dugu era isolatuko elementu edo tresna moduan ulertu, antolakundearen jardun eta proiektu politikoaren osotasunaren zati bat bezala

baizik.

Borroka moldeen baitan baliabideak topatzen dira. Baliabideak borroka molde ezberdinak aurrera eramaterako orduan erabiliko diren elementu materialak dira. Hala ere, argi eduki behar da baliabideak borroka molde bakoitzaren izaerarekin eta tokian tokiko testuinguru politikoarekin eta, batez ere, talde bakoitzaren gaitasun, grina eta sormenarekin estuki uztartuta daudela.

Haien izaera nagusian oinarrituta, honela sailka daitezke borroka moldeak:

- **Antolaketa** lanera bideratutako borroka moldeak
- **Finantzazioari** bideratutako borroka moldeak
- Izaera **sinbolikoko** borroka moldeak
- **Kopuruaren** logikan oinarritutako borroka moldeak
- **Propagandarako** borroka moldeak
- **Indarkerian** oinarritutako borroka moldeak

Garrantzitsua da presente izatea borroka molde baten ezaugarriak ez direla soilik kategoria batera mugatzen. Hau da, indarkeriazko borroka molde batean burututako ekintza batek izaera sinbolikoa ere izan dezake. Hala ere, ekintza burutzearen zergatiak, hau da, aurretiaz zehaztutako ekintzaren helburuak ematen dio borroka moldeari bere izaera nagusia.

ANTOLAKETA LANERA BIDERATUTAKO BORROKA MOLDEAK

Edozein eragile politikok bere eragiteko ahalmena mantentzeko eta hedatzeko, eragilearen beraren funtzionamenduari so egin behar dio, lan honek bere jardun politikoaren atal adierazgarri bat beteko duelarik. Esparru honetan, gainontzekoetan bezala, helburu zehatzak finkatuko ditu eragileak, horren arabera borroka molde ezberdinak garatuz. Hauek dira antolaketa lanera bideratutako borroka molde batzuk:

- **Kide berrien kaptazioak.**
- **Testuinguru politikoaren analisisa:** herri, eskualde edota maila nazionalekoak, testuingurua zein barne-egiturak aztertzerako bideratuak.
- **Plangintzak:** antolakundearen maila eta esparru ezberdinetan datozen egitekoak zehazteko tresnak.
- **Aktak:** antolakundeen barne-bizitza antolatze eta gardentasunez kudeatzeko bitartekariak, baita hartutako erabakiak jasotzeko ere.
- **Kanpora begirako antolaketa lana:**
 - *Koordinazio markoak:* eragile ugariren artean burututako borroka moldea, adostutako ekintzak garatze aldera (informazio trukaketa, kanpaina amankomunak...)
 - *Masa antolatzea:* eragile formaletako egituretatik at engaiamendu maila ezberdinak praktikatzeko dituzten tresnak eskaintzea.
 - *Kontrabotere erakundeak:* etsaiekiko konfrontazioan eskalada areagotzeko bitartekoak.

FINANTZAZIOARI BIDERATUTAKO BORROKA MOLDEAK

Egungo gizarte kapitalistan alternatiba iraultzailea gorpuzteko diruaren erabilpena oinarritzeko baldintza da. Horrela, elementu xumeetatik hasita eta konplexuenetaraino iritsita, materialak zein zerbitzuak erosi beharra dago, prozesu iraultzailean zehar borroka moldeak burutzeko orduan baliatu behar diren baliabideak eskuratzeko.

Finantziatzia bideratutako borroka moldeei esker, alde batetik, eragileek lan politikoa burutzeko gaitasuna bermatzen da eta, bestetik, bertan kokatutako borroka molde askori esker gizartean presentzia izatea lortzen da. Besteak beste, hauek kokatzen dira finantzaziorik bideratutako borroka moldeen artean:

- **Material salmenta.**
- **Kideen arteko kuota bilketa.**
- **Bono-laguntzak.**
- **Zozketak.**
- **Txosnak.**
- **Espropiazioak.**

IZAERA SINBOLIKOKO BORROKA MOLDEAK

Indarkeria edo kopuru erakustaldietan oinarritu gabe, sinboloen erabilera edota esanahi sakon edota deigarrian oinarritutako ekintzak kokatzen dira kategoria honetan. Borroka molde hauek jomuga den biztanleriarengan (etsaia, inguruko bizilagunak, zapalduak...) eragina emozionala gauzatzeko eta deigarriak izateko baliatzen dira, baita iritzi publikoari mezu zehatz bat helarazteko ere. Ekintza hauek etsaia desmoralizatzeko zein inguruko jendea motibatzeko erabili ohi dira. Bertan kokatzen dira, besteak beste:

- **Omenaldiak.**
- **Ekimen kulturalak.**
- **Desobedientzia ekintza sinbolikoak.**
- **Etsaiaren ikurrak ezabatzea edo erasotzea.**

Komunikaziorako teknologiak garatu diren heinean, izaera sinbolikoko borroka moldeek oihartzun handiagoa izateko baldintzak izan dituzte, garapen teknologikoaren aurretik errazagoa zelarik kopuruaren edo indarkeriaren bidez lortzea eragin hori.



KOPURUAREN LOGIKAN OINARRITUTAKO BORROKA MOLDEAK

Borroka molde hauek pertsona kopuruak suposatzen duen indar erakustaldian oinarritzen dira, hau da, etsaiari kalte zuzenik sortu gabe eta sinbolo berezirik erabili gabe (edo behintzat bigarren mailako osagai gisa), ahalik eta pertsona gehien batzea da borroka molde hauen helburu nagusia. Eragile konbokatzaileak jarraitzaile edo militante kopuru handia erakuste alderako mobilizazioak antolatu ditzake, edo baita zentzu irekiago batean herritarrak mobilizatzeko deialdi publikoa burutu ere. Kopuruaren logikan oinarritutako borroka moldeak deialdia egiten duen eragile politikoaren babes maila erakustera bideratuta daude, oro har, babesten duten pertsona kopuruaren adierazle gisa.

Borroka molde hauetan kokatzen dira, besteak beste:

- Manifestazioak.
- Kontzentrazioak .
- Eserialdi masiboak.
- Giza-kateak.
- Desobedientzia ekintza masiboak.

Kasuaren arabera aipatutako eserialdiak, desobedientzia zibila eta giza kateak borroka molde sinboliko gisa ere erabili daitezke. Adibidez,

eserialdi, errepide mozketak edota giza-kate txikiak burutu daitezke gune, eraikin edo eragile zehatz bat salatzeke.

Eragile batek kopuru erakustaldia burutzeko erabil dezakeen beste borroka molde bat hauteskondeak edota erreferendumak dira, tokian tokiko legediaren babesaren baitan edota aldebakartasunez. Bozketa masiboen bitartez, era argi batean adierazten da lurralde zehatz batean eragile edo mugimendu batek berari babes emateko prest dauden pertsona kopurua.

PROPAGANDARAKO BORROKA MOLDEAK

Gizarte modernoan protesta soziala abiarazi zen momentutik, oinarritzko borroka moldeak izan da eragileek haien inguruko informazioa edota deuseztatu beharreko etsaiaren gaineko informazioa gizarteari helaraztea. Hau da, inguruko jendea informatzeko, politizatzeko, ideologizatzeko eta antolatuzera deitzeko ezinbesteko borroka moldeak dira informazioaren helarazpenean oinarritutako ekintzak.



Bertan kokatzen dira, besteak beste:

- **Kanpaina mediatikoak.** Hedabideen bitartez burututako difusioan oinarrituak (telebista, irratan mezuak, sare sozialak...)

- **Kanpaina komunikatiboak edo propaganda kanpainak.** Kalean zehar burututako ekintzetan oinarritutako informazio helarazpena, kartelen, pankarten, margoketen, esku-orrien, pegatinen... erabilpena bertan txertatzen delarik.

- **Presio eta tentsio kanpainak.** Indarkeriaren erabilerarik gabe, zehazki etsaia seinaltatzera eta gizartearen tentsio eta konfrontazio giroa sortzera bideratutako kanpaina komunikatibo zein mediatikoak.

- **Jardunaldiak.**

- **Hitzaldiak.**

- *Aurkezpeneak.* Eragileen ibilbidea, lana, programa, estrategia... partekatzeko burutzen dira.

- *Kanpo aldizkarien argitalpena zen bestelako argitalpenak.* Eragileen barne zein kanpo lana, analisia edota teoriak komunikatzeko baliatzen dira.

- *Eragileekin batzarrak.* Eragileen arteko harremanak gauzatzeko baliatzen dira, komunikazio kanalak irekitzeko, informazioa partekatzeko...

INDARKERIAN OINARRITUTAKO BORROKA MOLDEAK

Kategoria honetan kokatzen dira indarkeriaren

erabileran oinarritutako ekintzak (intentsitate baxutik altura), etsaiei galera material zein pertsonalak sortzera zuzendutako ekintzak, hain zuzen. Ekintza hauek gizartearen gehiengoaren babesa lortu ezean konfrontazioa ahalbidetzeko tresna dira, eta gatazka bat polarizatzeko ere balia daitezke. Indarkeriaren erabileran oinarritzen diren borroka moldeen artean, besteak beste, hauek kokatzen dira:

- **Sabotaje materialak.**

- **Bahiketak.**

- **Kalte pertsonalak.**

- **Eraikinen edota lurraldeen okupazioak.**

- **Azpiegituren suntsiketa.**

- **Hiri barrikadak.**

Borroka molde hauek dakarten konfrontazioaren garapena dela eta, era sostengatu batean denboran zehar mantentzeko aurre-baldintza hauek dituzte:

- Zuzeneko jazarpenari eusteko gaitasuna.
- Etsaiak eragindako galerak suspertzeko gaitasuna.
- Etsaiaren gaineko informazioa eskuratzeko ahalmena.
- Etsaiaren komunikazio kanaletik at koordinatzeko gaitasuna.

Historikoki, lurraldearen gaineko kontrol efektiboa burutzeko, indarkeriaren erabilpenean oinarritutako borroka moldeak garatzea derrigorrezko baldintza izan da prozesu iraultzaileen baitan.





BURGOSEKO PROZESUA

Ugariak dira gaur egungo gizarteko iruditegira iritsi zaizkigun Frankismo garaiko errepresio politikoaren adibideak, baina hauen artean eredugarriena izan daiteke 1970eko abenduaren 3aren eta 9aren artean garatu zen Burgozeko prozesua. Funtsean, Euskadi Ta Askatasunako kideak ziren 16 pertsona prozesatuak izan ziren epaiketa sumarisimo baten bidez, hau da, modu azkarrean egotzitako larritasunaren ondorioz. Besteak beste, 1968 eta 1970 bitartean gauzatutako hiru pertsonen erailketak leporatu zitzaizkien, haien artean Melitón Manzanas; Gipuzkoako Brigada Politiko-Sozialeko burua.

Gertakari hauek erregimen nazional-katolikoan inflexio puntu bat izan ziren heinean, ondorio zuzenak izan zituzten estatuaren garapenean, oposizioan, gainontzeko estatuekiko harremanetan eta baita iritzi publikoan ere. Beraz, gai honi buruz aritzerakoan beharrezkoa da elementu hauek aztertzea, benetan izan zuen dimentsioaz jabetzeko.

ESPAINIAR ESTATUAREN GARAPENA

Espainiar estatuak, 1960ko hamarkadatik Frankismoaren amaiera arte, bere burua aldaketa ekonomikoak egitera behartuta ikusi zuen, erregimenaren biziraupena berma-

tzeko; izan ere, zor publikoa eta merkataritza defizita zifra izugarrietan zeuden. Horrela, 1959ko Egonkortze Planarekin batera, hasiera eman zitzaion desarrollismoaren garaia. Neurri ekonomiko honek aurreko autarkiari amaiera eman zion, kanpo-merkataritza sustatuz. Egonkortze plan honi gehitu behar zaizkio, 1953an Espainiak Amerikako Estatu Batuekin sinaturiko Madrilgo Ituna eta 1955ean Nazio Batuen Erakundean sartu izana.

Neurri guzti hauek berebiziko garrantzia izan zuten Gerra Hotzaren testuinguruan AEB eta orokorrean bloke kapitalistarentzat, Espainia aliatu organiko bat bezala kontsideratzen

hasteagatik, bere posizio geopolitikoarengatik eta merkatu berri bat irekitzeagatik. Beraz, nahiz eta Espainiak nazioartean adostutako eskubide demokratikoak ez errespetatu, akordio batera iritsi behar izan ziren.

Hala ere, Kanpo harremanak hobetu arren, oposizioa egon bazegoen bloke kapitalistaren baitan. Horregatik, errepresio politikoari zegokionez, espainiar estatuak aldaketa bat gauzatu behar zuen akordio ekono-

ETAREN EGOERA

1965ean gauzaturiko ETaren IV. Asanbladaz geroztik, antolakundea parametro aurrerakoi-etan kokatu zen, militantzia komunista gero eta gehiago izanik eta sektore nazionalista hutsak, aldiz, gero eta gutxiago. Horretaz gain, V. Asanbladaren eskutik, praktika politiko gisa hasiera eman zitzaion Ekintza-Errepresio-Ekintza logikari, ekintza militarra bideratutako aparatua sortu behar izanik.



mikoak denboran zehar bermatu ahal izateko. Estatuan bertan ere bere oposizioaren izaera aldatu zen. Gerra Zibila eta gerraostea bizi izanaz beldurtuta geratu zen belaunaldia ez zen oposizio bakarra jada, gerran parte hartu ez zuen oposizio bat existitzen baitzen, jasaten zuen zapalkuntzaren jabe zena. Gauzak horrela, talka egin zuten errepresio politiko lausotu beharrak eta oposizio berri baten agerpenak.

IV. Asanbladan antolakundearen izaera aldatu arren, 1966 eta 1967 tartean garatu zen V. Asanbladan hartu zen norabide iraultzailea. Honetan, Análisis y crítica del españolismo socialchauvinista edo Txatarra Txostena aurkeztu zen, antolakundearen oinarri ideologiko gisa hartu zena. Honekin batera, ETak nazio askapenerako antolakunde sozialista eta iraultzailetzat definitu zuen bere burua. Dena den, antolakunde iraultzailearen baitan antolatuta

zegoen sektore batek utzi egin zuen nazio auziari zegozkion ezberdintasunen ondorioz. Hauek ETA-berri osatu zuten, beranduago Espainiako Mugimendu Komunista eratzen lagundu zutenak. Bestetik, sektore kulturalista antolakundearen norabide ideologiko eta estrategikotik baztertua izan zen. V. Asanbladan adostu ziren urteetan zehar iraun duten lau aparatua: politikoa, militarra, ekonomikoa eta kulturala, alegia.

1970. urtean, Burgosek Prozesua gauzatu zen urtean, zuzendaritzak VI. Asanblada deitu zuen eta, honekin batera, momentu horretan itxita zeuden eztabaida ideologiko berriak zabaltzeko nahi izan ziren. Momentu horretan zuzendaritza alderdi marxista bat sortzearen aldekoa zen, beranduago Euskal Iraultzarako Alderdia izango zena. Bestalde, Zelula Gorriak zeuden, nazio askapen prozesua garatu eta borroka armatuaren aurkakoak zirenak. Azkenik, V. Asanbladaren aldekoak zeuden. Desadostasun eta mesfidantza klimaren ondorioz, lehenengo bi sektoreek azken hau kanporatu zuten. Halaber, ETA-V eta ETA-VI erakundeak sortu ziren. Azkenean, lehenengoa, V. Asanbladako oinarri ideologikoekin bat egiten zuena izan zen ETaren siglak bereganatu zituen.

Testuinguru honetan eman zitzaion hasiera Burgozko prozesuari, Espainiako diktaduraren zilegitasuna kolokan jarri zuen gertakariari, hain zuzen. Bertan, besteak beste, Melitón Manzanas torturatzailerak

exekutatzeari, ETaren lehenengo erailketa planifikatuzko usteko errudunak ziren 16 auzipetu zeuden. Kartzela zigorreraino gain, heriotza zigorra eskatu zuten horietatik 6 militanterentzat.

BURGOSEKO PROZESUA

Espainiar estatua aperturismo garai batean murgilduta zegoen, Mendebaldeko blokearekin organikoki lerrokatzen hasia zelarik. Testuinguru horretan, errepresioari zegokionez lausotze garai bat ekarri behar zuen espainiar estatuak, bere aliatu kapitalistek aldaketa zantzuak nabaritu zitzaizkion. Oposizioa, ordea, kasu honetan ETA, nazio eta klase askatasuna helburu izanik diktadurari jarki behar zitzaion eta estatu zein enpresen aurka militarki jotzen hasi zen.

Testuinguru horretan garatu zen Burgozeko Prozesua. 1968ko abuztuaren 2an burutu zen Melitón Manzanasen erailketa, erakundeak planifikatu zuen lehenengoa. Baina aurretik José Pardines guardia zibila hil zuten eta 12 egun beranduago, apirilaren 21ean, taxilari bat hil zuten 100 atxiloturekin amaitu zuen pertsekuzio batean. Horretaz gain, beste lapurreta batzuk ere leporatuta, guztira 16 pertsona auzipetu zituzten auzitegi militar baten bitartez eta prozedura sumarisimo bat jarraituz. Hau da, delituen larritasunaren eta gardentasunaren ondorioz modu azkarrean gauzatu zen prozedura eta epaiketa hasi arte



espedienteak sekretupean egon ziren. "Matxinada orokor jarraitua" leporatzen zieten, eta guztira 752 urteko kartzela zigorra eta 6 heriotza zigor ziren eskatzen zitzaizkien.

Espainiar estatuak determinazioz jardun nahi zuen oposizio berri honen aurrean, Burgozeko Prozesua indar erakustaldi bat bihurtuta. Epaietarekin oposizioa indargabetu nahi zuen, ETArekin amaitu, alegia, antolaketarako buruzagitza espetxeratuz eta barne-egoera ezegonkorra baliatuz.

EPAIKETAREN AURREAN EGONDAKO ERANTZUNAK

Francoren erregimenak propaganda sakona egin zuen epaiketa honen inguruan, estatuen indarra mahai gainean jartzeko asmoz. Helburua oposizioan desmobilizatzeko joera gailentzea izan zen, honen aurka oldartuta. Bien bitartean, oposizioak, Burgozeko prozesua

baliatu zuen diktaduraren errepresioaren irudi bezala baliatu zuen, hau Euskal Herrian, estatu osoan eta nazioartean ere zabaltzeko. Hala ere, estatuak ezin izan zuen bere helburua lortu, Melitón Manzanasek gauzatutako torturen salaketak sozializatu egin baitziren epaiketa honen bitartez. Horren ondorioz, oro har, iritzi publikoa epaituen alde jarri zen. ETak, bere aldetik, barne-eztabaidak tartean, gertakari honen berri emateko Alemania Federaletako kontsula bahitu zuen, nazioarteko arreta are gehiago erakarrit.

Euskal Herrian Burgozeko prozesuaren aurrean mobilizazio ugari egon ziren, hauen artean, lan etenaldiak, ikasle grebak eta manifestaldiak. Kasuak dimentsio handiagoa hartu zuen eta gizarteko egunerokotasunean nabaritzen hasi zen, errepresioa bera ere handituz, zibil baten erailketa bat barne. Konfrontazio maila hainbeste handitu zen, ezen estatuak salbuespen egoera deklaratu

zuen, lehenengo Euskal Herrian eta beranduago estatu osoan.

Europa osoan zehar sortu ziren gertakari hauen aurreko erreakzioak, hein handi batean, oposizioaren aldekoak. Estatu-arekiko deslegitimazio kanpaina hau frantziar estatua, Italiara, Alemania Federalera, Danimarkara, Suediara eta beste toki askotara zabaldu zen. Espainiarekin jada aliantzak sendotuta zeuzkaten herrialdeek presioa sentitu zuten, bertako gizartea kasu honen aurka kalera ateratzen hasi zelako. Beraz, Espainiaarentzat epaiketaren sozializazioa ez zen batere onuragarria, Mendebaldeko herrialde kapitalistekin aliantzan jarraitu nahi bazuen. Azkenik, botere eklesiastikoak ere zeresana izan zuen epaiketa honetan, 16 horietatik 2 elizgizonak ziren eta. Euskal Herrian elizaren baitan erregimenarekiko oposizio sendoa zegoen. Batikanoa bera ere heriotza zigorren aurka posizionatu zen, presioa are gehiago handituz.

ZIGORRA

1970eko abenduaren 25ean, ETAk Alemania Federaletako kontsula askatu zuenaren berri eman zuen. Egun berdinean, Opus Dei-ko teknokraten eta falangisten arteko barne-etzabaida askoren ostean, sententzia publikoa egin zen, osotara 9 heriotza zigor eta 519 urteko espetxe zigorra.

Zigor gogor hauen aurrean, nahiz eta salbuespen egoeran

egon, lan etenaldiak, grebak eta manifestaldiak burutu zituzten estatu osoan zehar. Mundu zehar ere egon ziren elkartasun adierazpenak, baita presio diplomatikoak ere estatu askoren partetik: Frantzia, Britainia Handia, Alemania Federala, Austria, Suedia, Danimarka...



"Burgoseko prozesua aktore askoz osatutako gertakari bat izan zen, inflexio puntu bat suposatuz zuena Frankismoarentzat eta oposizioarentzat."

Zigor hauek zalantzan jartzen zituen bloke kapitalistarekin gauzatutako akordioak, eta estatu barnean oposizioa koldartzetik urrun, honen antolakuntza sustatu zuen. Hala ere, Estatua kontziente zen heriotza zigor hauek barkatzeak estatuen ahultasuna islatuko zutela. Azkenik, abenduaren 30ean, Ministroen Kontseiluak aho batez erabaki zuen heriotza zigorrak graduz jaistea. 7 urte beranduago, 1977an, amnistia faltsuaren ondorioz Burgoseko Prozesuan atxilotutakoak askatu zituzten, hauetako batzuk erbeste-teratuak izan zirelarik momentuan bertan.

Laburbilduz, Burgoseko prozesua aktore askoz osatutako gertakari bat izan zen, inflexio puntu bat suposatuz zuena Frankismoarentzat eta oposizioarentzat. Alde batetik, Frankismoak bere zilegitasuna galdu zuen, hein handi batean, bai mugen barruan eta baita nazio artean ere. Bost urte beranduago Frankismoari amaiera eman zitzaion, 1975etik aurrera erailketa politiko gehiago gauzatu ziren arren. Bestalde, oposizioari dagokionez, 1970etik aurrera indar handia irabazi zuen, Espainia mailan sektore zabal bat Espainiako Alderdi Komunistak (PCE) ordezkatuta. Beranduago trantsizioan baina guztiz indargabetu zen, Europa mailako mugimendu komunista osoarekin batera. ETari dagokionez, espainiar estatu burgesari militarki aurre egiteko jarrera irmoan berretsi zen 1970etik aurrera. Ideologikoki, hurrengo urteetan V. Asanbladako ildoak izan zen nagusitasuna lortu zuena Euskal Herriko testuinguru politikoan. Eta, aldi berean, espainiar estatu burgesaren eta Euskal Herri Langile Iraultzailearen arteko konfrontazioa kualitatiboki zein kuantitatiboki handituz joan zen.





"Klase gatazkaren baitan ulertu beharra dago, zentzu politikoan, etsaien arteko harremanean, norgehiagoka batean."

INDARKERIAREN INGURUAN

Indarkeriaren inguruan hamaika eztabaida entzuten eta honen inguruko propaganda jasaten dugu egunerokotasunean: indarkeriaren errefusatzeko absolutua, definizio arbitrarioak, hipokrisia bere erabileraren inguruan... Egoera honetan, indarkeria behar bezala definitzeak egoera ulertzea ahalbidetzen du, aldi berean, definizioa bera ezinbestekoa delarik honen erabileraren inguruko eztabaidan.

INDARKERIA

Indarkeria pertsonen (norbanakoen zein kolektiboen) erabakitze aukeren eta gaitasunen gaineko kohertzioa da, haien nahien aurka, forma ezberdinetara burutu daitekeena: pertsonen gaineko indar fisikoa erabiliz (gogoz kontra espazio

fisikotik mugitu, gorputza bortxatuz...) espazio publikoan eraginez edota objektuen gain indarra erabiliz. Indarkeriak kalte materialak, orden publikoaren apurketa, traumatismoak, eragin psikologikoak eta heriotza izan ditzake zuzeneko helburu.

Pertsonen erabakitze aukeren murrizketa suposatzen duten ekintzak intentsitate eskala baten bitartez adierazi daitezke. Hau da, ekintzak haien baitan duten indarkeria intentsitate baxutik altura sailkatu daitezke. Maila baxuan pertsonen kohertzio maila lausoa topatzen da. Maila altuenean, ordea, pertsonen erabakitze gaitasunen deuseztatzea kokatzen da. Horrela, errepide batean eserialdi baten bitartez trafikoa moztuta, pertsona askoren egitekoak eta nahiak oztopatu

daitezke, adibidez. Baina ekintza horren indarkeria intentsitatea erailketa baten intentsitateetik urrun dago. Azken finean, pertsona bat erailtzean bere erabakitze aukerak era absolutuan murrizten dira: ezin izango du gehiago erabaki.

KLASE GATAZKA, IDEOLOGIA ZAPALTZAILEA ETA INDARKERIA

Behin indarkeria definituta, ohartuko gara oso presente dagoela hau gure egunerokotasunean. Egutero jasaten edo ikusten ditugu indarkeriaren espresioak, batzuk gizartearen funtzionamenduan guztiz normalizatuak daudelarik. Indarkeria batzuk onartuta egoteak klase gatazkaren isla dira,



ekintza horiek ideologia zapaltzaileak justifikatzen ditu eta. Bertan kokatzen dira, esaterako, etxegabetzeak. Etxegabetze batean jabetza pribatuaren eskubidea etxebizitza eskubidearen gainetik kokatzen da, alokatzaileak alokatua edo maizterra kanporatzea legez babestua dagoelarik. Bizilekurik gabe geratzeak, beste alternatibak topatzearen menpe, langileon bizitzan eragin sakona du, etxegabetzea klase zapaltzaileen eraso gisa ulertu behar delarik.

Etxegabetzeak gizarte kapitalistak langileon aurka onartutako indarkeria kasuak badira, kontrako adibideak ere aurkitzen ditugu gizartean, hau da, langileok burututako kaleko protesta eta mobilizazio politikoak, adibidez. Hauek kritikatuak izan ohi dira hezkuntza sistema eta hedabideen aldetik, ekintza hauetan ageri den indarkeriaren presentzian jartzen dutelarik enfasia.

Ondorioa argia da: klase zapal-

tzaileak bere dominazio posizioa mantentzeko indarkeriaren modu anitzak erabiltzen ditu, batzuk gordinagoak, beste batzuk lausoagoak, baina denek par-tekatzen dute pertsonen erabakitze gaitasuna mugatzera bideratutako ekintzak izatea, klase zapalketa mantentze aldera.

Horrela, alde batetik, klase zapaltzaileak bere klase interesen aldeko indarkeria adierazpenak zuritu egiten ditu, biztanleriak ekintza normal gisa ikusi ditzan. Bestetik, bere klase interesen aurkako ekintzen aurrean hauen indarkeria izaera azpimarratzen du, deslegitimazio gisa. Hau da, indarkeria baliabide bat da, etsaiak oso ondo erabiltzen duena bere interesak defendatzeko, klase gatazkan bere gailentze posizioa mantentze eta indartze aldera. Gauzak horrela, argi geratzen da indarkeria klase gatazkaren baitan ulertu behar dugula, klaseen arteko konfrontazioaren baitako baliabide bat bezala.

INDARKERIA ZAPALTZAILEAREN ADIBIDEAK

Terrorismoa masa hedabideetan zein legedi burgesetan gero eta gehiago aipatzen da, orden konstituzionala erasotzera bideratutako ekintza oro terrorismoaren etiketapean kokatuz. Terrorismoa, definizio horretatik urrun, aurrez aurreko borrokaren ukapena suposatzen duen eraso gisa definitzen da, etsaiaren autodefentsa saihesten duen ekintza izanik. Gerra konben-

tzionalaren aurkakotasunean kokatzen da, zeinetan bi subjektu (edo gehiago) eraso dinamika ireki batean kokatzen diren. Zentzu horretan, armatua dagoen subjektu batek, erasoaren momentuan armarik ez duen (edo berau erabiltzeko aukera ez duen) jomuga baten aurkako erasoan datza terrorismoa.



"Terrorismoa masa hedabideetan zein legedi burgesetan gero eta gehiago aipatzen da, orden konstituzionala erasotzera bideratutako ekintza oro terrorismoaren etiketapean kokatuz."

Terrorismoak presio psikologikoaren bitartez lan egiten du, oro har, helburua etsaiari baja kuantitatiboak eragitea ordez, biztanleria zibilarengan beldurra eta paralisia sortzea delarik. Zentzu honetan, terrorismoa klase zapaltzailearen indarkeria baliabide oso erabilia izan da historian zehar; atentatu indiskriminatuak, legedi burgesa bera betetzen ez duten justifikaziorik gabeko atxiloketak (ingurukoek bi aldiz pentsa dezaten ekintza politikoa burutu edo txioa idatzi baino lehen), eta salbuespen egoeren baitan erabilia.

Estatu-nazio kapitalisten arteko gerretan, armada langile klaseko jatorria duten soldaduengatik osatua dago bere gehiengoan,

eta gerra modernoetan biztanleria zibilaren eraso sistematikoak burutzen hasi zenetik, jomuga zibila klase zapaldua izan ohi da. I. Mundu Gerra baino lehen gerra bateko heriotzen % 5 inguru zen zibila, I. Mundu Gerran % 15 eta II. Mundu Gerran % 65. Azken finean, gerraren esparru geografikotik ihes egiteko gaitasun ekonomikorik edo bestelako baliabiderik (atzerrian harreman sareak, esaterako) ez duen biztanleria sektorea, alegia.

Estatu indar polizialen indarkeria fisikoa egunerokotasunean ikusgarritasun handiena duena da, biztanleriaren gehiengoak zapaltzaileen indarkeria gisa identifikatzen duena, hain zuzen. Indarkeria polizialaren adibide batzuk legedi burges zapaltzailean babesturik eta arauturik daude, adibidez, mobilizazioetan poliziek burutzen dituzten oldarraldiak (porrazoak, mota guztietako kolpeak, tiroak...).

Hala ere, indar polizialen indarkeria adierazpen asko, tartean latzenak, inpunitate esparruan gauzatzen dituzte, errepide kontroletan, atxiloketa garaian, gerra ez konbentzionalean... tortura eta heriotza (torturagatik, zuzenean exeku-tatua...) izanik indar polizialen adierazpenik gordinenak.



Indar polizial zapaltzaileek historian zehar zein gaur egun gauzatutako indarkeriak kontrol soziala ahalbidetzen duen paralisia sorrarazten du, bere menpeko giza komunitatean, haien presentzia hutsarekin; jazarpena jaso ahal izateko

aukerak azaleratutako beldurrak sorrarazitako paralisia, hain zuzen.

Sistema penitentiarioa klase gatazkaren garapenean zapaltzaileek sortutako baliabidea da, klase zapalduko elementu "problematikoenak" bertan gordetzeko helburua duelarik: bai legedi burgesaren arabera jabetza pribatuaren aurkako delituak burututako pertsonak, bai sistema politiko edota ekonomikoa eraldatzera bideratutako ekimenak burutu dituzten pertsonak. Pertsonak bertan giltzaperatuta edukitzeak hauen erabakitze gaitasuna zeharo mugatzea suposatzen du, haien bizitzaren gaineko kontrola era sakonean desagertzen delarik.

Lan istripuak indarkeria zapaltzaile gisa definitu beharra dago ezinbestean. Kapitalismoan langileok burgesentzako lan egitera kondenatuta gaude.





Hortaz, enpleguak lortzeko eta bertan irauteko presio bortitza jasaten dugu gure bizitza osoan zehar. Lanpostuan gaudelarik, langileok jabeentzako merkatzia edo zerbitzuen ekoizpena burutzen dugun bitartean, ahalik eta lan gehien egin behar dugu, esfortzu fisiko handia eginez, estresa jasanez..., kaleratze mehatxuak ekiditeko, kontratuak luzatzen saiatzeko... langabeziaren presiopean sarri.

Langileak estutzeaz gain, jabeek haien etekinak maximizatzeke lanpostuan ezarritako lan baldintzak okertzen dituzte, langileon eskura dauden segurtasun neurriak eta lan egiteko beharrezkoak diren oinarritzko erosotasun baldintzak (lan segurtasun formazioa,

atsedenaldiak, tresna egokiak, espazioaren antolaketa egokia, argiztapena...) kaskarrak direlarik lan sektore askotan.

Baliabide egokien faltak sortutako egoera tamalgarrietatik haratago, langileok jasandako presiopean burutu beharreko lana garaiz burutzeko helburuak segurtasun neurriak era desegokian erabiltzea edo zuzenean ez erabiltzea du ondorio askotan. Lanpostuan korrika eta presaka ibiltzen gara (pisua edota kargak mugitzen gorputzaren mugimendu eta postura egokiak burutu gabe, esaterako). Ondorioz, lan istripuen erantzule zuzena esplotazioaz etekina lortzen duen burgesa da.

Oinarritzko baliabideen ukapena.

Klase zapalduak bizitzarako beharrezko dituen oinarritzko baliabideak legedi burgesean eskubide gisa zehaztuak egon badaitezke ere (etxebizitza, ur korrontea, argindarra...), errealtatean hauek kontsumitzeko gaitasun falta izaten du klase zapalduak.

Erregimen burgesean jabetzaren araberakoak dira eskubideak: gero eta diru/jabetza gehiago, orduan eta kontsumo gaitasun gehiago, eta ondorioz eskubide gehiago erosteko gaitasuna. Aurkako egoeraren adibide bat ipintzearen, soldata kaskarrak dituen langile familia batek, esaterako, neguan argindarra erabili edota gasa erabiltzeko ezintasuna izango du, hotza eta

hezetasuna jasanez haien etxebizitzan. Egoera honen ondorio zuzen bat haien osasuna okertzea izango da, bai fisikoa, bai emozionala. Oinarritzko baliabideen ukapean kokatzen da etxebizitzaren problematika, zeinetan Euskal Herriko milaka etxebizitza hutsik dauden, langile klaseko familia zein norbanako askok etxegabetzak jasaten dituzten bitartean.

Uraren, argindarraren, gasaren edota etxebizitzaren falta langileon aurkako indarkeria gisa ulertu behar dira, are gehiago, baliabideak soberan ekoizten eta jabetza gaitasuna izanda baliabideak xahutzen dituen kapitalismoaren baitan gauden bitartean.



"nazioarteko estatu zapaltzaileek ez dute arazorik kapitalismoa ezbaian jartzen duten tokian tokiko iraultzak zanpatzeko."

Isunen erabilera indar polizialek zein administrazio aparatuek burutzen dute. Isunen bitartez bideratutako zigor sistemak ez du klase zapaltzailea kolpatzen, egunerokotasunean bere nahia gauzatzean isunei aurre egiteko arazorik ez du eta. Alderantziz, isunen mehatxuak klase zapaldua guztiz paralizatzen du, egunerokotasunean soldata kaskarren menpe bizita edota langabezian egonda, isun bat jasotzeko mehatxuak etxebizitza mantentzea, seme-alaben bizi-baldintzei eustea, laneko nagu-

sien aurreko itxura... baldintzatu ditzake, aldaketa sakonak sorraraziz.

Azken urteetan militantzia eta aktibismo politikoaren esparruan isunen erabilpena eta hauen kantitate ekonomikoa areagotzen ari da indar polizialen eta administrazio publikoaren alde-tik, protestak edota ekintzak burutuko dituztenek kalera irten baino lehen isunen faktore ekonomikoa kontuan hartzen dutelarik. Hau da, zapaltzaileek borroka adierazpenak mugatzeko tresna ekonomiko gisa erabiltzen dituzte isunak.

INDARKERIA, ZAPALDUON BESTE TRESNA BAT

Indarkeriaren erabilerak zapaltzaileen aldetik helburu zehatz ugari izan ditzake, baina denak daude bere pribilegioak mantentzera bideratuta, epe luzeko perspektiba batekin. Hau da, nahiz eta gerra batek eta manifestazio baten jazarpenak helburu zehatz ezberdinak eduki, biak bere klase posizioa mantentzeko burutzen ditu estatu kapitalista batek. Zentzu horretan, eskura duen baliabide bat gehiago da indarkeria, klase gatazka aurrera eramateko erabiltzen dituen beste tresnak batzuk direlarik hezkuntza sistema, zerga sistema, masa hedabideak...

Era berean, zapalduok tresna ugari ditugu klase gatazkan aurrera egiteko, bertan kokatzen direlarik, adibidez, antolakuntza iraultzailearen garapena eta borroka ideologikoa. Gatazka

garatuz doan heinean, etsaien arteko logika batean, klase zapaltzaileak ez dio bere dominazio posizioari bere kabuz utziko justiziaren izenean, eta aldaketari erresistentzia planteatzen dio gaurdanik (intentsitate maila baxuko jazarpenetik gerra zikinera).

Bai erasoen aurreko erantzun legitimo gisa, bai etsaiarekiko gatazkaren garapean, indarkeriaren erabilera iraultzaileok eskura dugun beste tresna bat da. Erabilera hau ez da zapalduok erabakia, eraldaketa sozial sakonak matxinada, gerra, borroka armatua edo iraultzen bidez garatu baitira. Are gehiago, nazioarteko estatu zapaltzaileek ez dute arazorik kapitalismoa ezbaian jartzen duten tokian tokiko iraultzak zanpatzeko.

Hala ere, indarkeriaren erabilera ez da zentzu erromantiko batean ulertu behar inoiz. Klase gatazkaren baitan ulertu beharra dago, zentzu politikoan, etsaien arteko harremanean, norgehiagoka batean. Testuinguru honetan, gaur egun borroka ideologikoaren garrantzia azpimarratu beharra dago, indarkeriaren izaera era argian azalduz, klase zapaltzaileak injustiziak defendatzeko burutzen duen indarkeriaren erabilera salatuz eta, aldi berean, askapenaren bidean etsaiarekin bukatzeko beharrezkoa den tresna oro mahaigaineratuz.



Jesus Mari Mendinueta "Poix-tiña" Arbizuarrekin solastu gara. Gaztetatik militatzen hasia, Jarrai eta HASI-n arituta Euskadi Ta Askatasuna-ra militatzera igaro zen. Horrela, 4 urtez aritu zen sasia. 1991ko abuztuaren 29an, Etxebarria parkean zipaioek Juan Mari Ormazabal "Tturko" akatu zuten operazioan atxilotua izan ondoren, 23 urte eman zituen espainiar estatuko espetxe ezberdinetan, preso politiko gisa.

1. Zein zen Euskal Herriko testuingurua militatzen ari zinean?

Frankismoko diktaduratik irteten ari zen unean eta beraiek deitzen dioten sistema demokratiko kapitalistaren baitan, hau

da, demokrazia organikorako trantsizioan kokatu behar da Euskal Herriko testuingurua. Kapitalismoaren diktadura erara pasatzen ari ginen. Testuinguru horretan, atzean uzten zen nolabaiteko askatasun falta eta horrek, hamarkaden ostean, askatasun haizea zekarren Euskal Herrira. Ilusio eta amets asko egin ziren, baina horretaz kutsatuta egon arren ere, euskal nazional askatasun mugimenduak hankak lurrean eta ondo errotuta zituen bere hausnarketetan.

Konfrontazioarekin aurrera jarraitu beharra zegoen. 5. Batzarreko, hau da, Txabi Etxebarrietak eta beste kide batzuk parte hartu zuteneko, eta 6. Batzarreko erabakiek inoiz baino gaurkotasun handiagoa zuten

eta ildo estrategiko iraultzailea zuzen markatuta zegoen. Kalea, ilusioz eta askatasunaren egarri bazegoen ere, borroka-gune bat zen. Euskal Herrian, egunero, kaleak borrokarako esparrua ziren eta herriak bere horretan erakusten zituen guztia eraldatzeko nahiak eta beharrak; bai sistema kapitalista eraldatzeko, bai nazio euskal klase langileriatik emakumeen zapalkuntza eta euskararen zapalkuntza gainditu eta gure askatasuna lortu ahal izateko.

Egoera horretan, etsaiaren aldetik, sistemaren aldetik eta bi estatu zapaltzaileen aldetik, hau da, estatu frantsesaren eta espainiarraren aldetik testuinguru berezia sortu zen, egoera berriari egokitzen zena. Hala ere, garbi eduki behar da guzti horrek



lotura zuzena zuela frankismoko erregimena atzean geratzea-ekin. Azken finean, Frankismoko estruktura guztiek demokraziako organikoaren erregimen horretara bideratuak izan ziren. Orduan, zer esanik ez, gerra zikina pil-pilean zegoen eta gerra zikinak arlo ezberdinak zituen.

Lehena, militante iraultzaileen zuzeneko desagerraraztea. Bigarrena, drogen testuingurua eta horretan kokatutako sare kolaboratzaileak eta txibatoen sareak, euskal nazional askatasun mugimenduari buruz eta Euskal Herria egozten ari zen guztiari buruz informazioa lortzeko.

Horiekin batera, testuinguru sozio-ekonomikoa ere bazegoen eta horretan euskal klase langileriak eraman zuen borroka. Borroka sakona, sakrifikatua, langile askok bidean bizitza utzi zutelarik. Adibidez, Potasas, Nafarroakoa edota Euskalduna-

rena. Azken honek 1982tik 1986ra arte iraun zuen gutxi gorabehera, baina punturik altuena 1984an iritsi zen birmoldaketaren industrialarekin, non euskal klase langilerietako bat hil zuten Bilbon. Bazeuden greba orokorrak, bata bestearen atzetik, eta greben izaera politikoa zen. Hor sar zitezkeen bai arlo ekonomiko edota sozio-ekonomikoan kokatutako grebak, baita militante iraultzaile bat gerra zikinak hiltzen zuenarekiko grebak ere.

Kasuan kasu, Iparraldean, ETA-ko militanteak, militante iraultzaileak, GAL-ek edo Batallon Vasco Español edo dena delakoak exekutatzen zituen. Hegoaldean, berriz, adibide bat jartzearen, Santi Brouard-en erailketa aipatuko nuke, denboran eta ia egunean kointziditzen duena Euskaldunako langileria-aren exekuzioarekin.

Horrez gain, Frankismotik sortutako erregimen diktatorial edo demokrazia organiko horrek

eratutako instituzioa zegoen; hau da, 89ko Espainiako Konstituzioak ez du islatzen, inolaz ere, iberiar penintsulan dauden herri zapalduen askatasun egarria, ez euskal klase langileri emakumearen zapalkuntza, ezta euskararekiko zapalkuntza.

Euskal Herria desagertzera bideratu zen instituzionalizazioa. Instituzio horretan sortu zen Gernikako Estatutua, hau da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarentzako instituzionalizazio bat. Ostean, 1982an Nafarroako Foru hobekuntza sortu zen. Hor garbi geratzen zen sistema kapitalistak. Instituzio kapitalista burgesek zein estatu zapaltzaileek, Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren nazioa banatu nahi zuten. Orduan, euskal nazioari buruzko errekonozimendu falta bat egotea lortu zuten bi estatutu ezberdinekin. Eta zer esanik ez estatu frantziarrak Iparraldearekiko eramandako politika, honek ere urrunarazi egiten baitzituen Hegoaldearekiko lotu-ra eta batasunaren bidea.

Aipagarria da estatu frantsesak erabiltzen duen politika euskal nazioa asimilatzeke. Kontuan izan behar da garai horretan, 1981ean, PSF-k irabazi zuela Frantziako presidentetza Mitterrandekin. Bere garaian, Mitterrandek Euskal Herrira egindako bisita batean prestutasuna erakutsi zuen, hitzekin, Iparraldeari nolabaiteko instituzionalizazioa onartzeko eta euskarari nolabaiteko errekonozimendua emateko, baita euskal errefuxiatu politikoei estatutu

politikoa emateko ere. Baina denok dakigun bezala, sistema burges honek eta alderdi sozialdemokratak beraien hitza jan eta guztiz kontrakoa egiten dute.

Hori dela eta, espainiar eta frantziar gobernuen arteko kolaborazio sakona hasi zen. Bi alderdiek, PSF-k eta PSOE-k, azken honetan Felipe Gonzalez buru zelarik, gerra deklaratu zioten bere osotasunean Euskal Herriari. Gerra zikinaz gain, deportazioak, atxiloketak, razia polizialak, erailketak eta nola-baiteko asimilazio prozesua hasi ziren. Beraz, une horretako Euskal Herriko testuingurua ulertzeko, demokrazia burges hori sortzen ari zen testuingurua da gakoa, euskal nazioaren euskara, euskal klase langileria eta euskal klase langileri emakumea deuseztatu eta zapalduta mantentzeko xedea zuena.

Hori izanik gure herriko kontestua, ezin da ahaztu, azken finean, testuinguru internazionalak zuen eragina gure herriarengan, gure nazioarengan. Testuinguru horretan, Amerika Latina zegoen. Nikaraguan, Frente Sandinistak irabazi zituen hauteskundeak gerra baten ostean. El Salvadorreko Frente Farabundo Marti-ko gerrillariak oso garrantzitsuak izan ziren, estatuaren izaera behin baino gehiagotan muturrean jarri zutenak. Horrez gain, Sobietar Batasuna eta Gerra Hotza deiturikoa ere egon ziren inperialismoaren eta Sobietar Batasunaren artean. Testuinguru

horiek eta Afrikan emandako askapenerako borrokek ere gure herrian izugarritzko eragina izan zuten. Hala ere, ezin ditugu ahaztu Egipton Nasserri emandako golpea eta erailketa, Yemenen emandako gerra, Iranen Ho mainek chiitek irabazitako gerra. Guzti honetan Aljeria ere kokatzen da, nahiz eta estatu frantsesak lehenago kanporatu zituen aljeriarrak beraien lurraldetik. Guzti honen ondorioz sortutako testuinguru sozio-politiko eta ekonomikoak

kontraesankorra sortzen zuten Euskal Herrian. Baina, era berean, argi utziz beraien ibilbidea amaierara zihoan ibilbidea zela, erreformismoan bukatuko zuen ibilbidea sistema legitimatzen eta, hori ez bazen, desagertzera egingo zutenak. Azkenean, euskal nazio askatasun mugimenduak eta ETA-k, batez ere, bere erabaki estrategiko iraultzaileekin hartutako bidearen zilegitasuna eta zuzentasuna indartu eta herri-ratu zen.



bete-bete eragin zion Euskal Herriari, eta Euskal Herrian antolatzen edo, hobeto esanda, bidean sakontzen zihoan euskal nazio askatasun mugimenduari, estrategia iraultzailea aurrera eramanez ahal izateko.

Bukatzeko, Euskal Herriko testuinguru horretan, oso garrantzitsua da euskal nazio askatasun mugimenduaren inguruan emandako beste sektore ezberdinen borroka ere kontuan hartzea. Inguruko borroka guzti horiek; hau da, polimiliak, autonomoak eta borroka marko batean antolatu gabeko horiek egoera

2. Zerk bultzatu zintuen militartzeko pausoa ematera?

Nik uste dut faktore asko eta gauza asko daudela kontzientzia hori hartzeko, baina oso luze joko luke eta oso zabala izango litzateke detailez detaile kontatzeari.


Alde batetik, umea eta nerabea nintzenetik konturatzen hasi nintzen zer testuingurutan bizi ginen eta orduan zeuden injustiziak, zapalkuntzak, eguneroko bizitzaren genituen errealtatean, kaleetan, herrian, hirietan, gure Euskal Herrian. Eta nola ez, maila internazionalen ari ziren

borrokek ere nire baitan kontzientzia bat eratzeraz eraman ninduten pixkanaka. Azken finean, konturatzen joan nintzen eremu asko edo toki asko egon ahal zirela nire ekarpena egiteko borrokan. Berehalaxe jabetu nintzen zerbait lortu nahi bagenuen, ez zegoela beste biderik proiektu iraultzaile batean militatzen hastea baino.

Egia esan, ez zitzaidan batere zaila egin zer proiektu iraultzaile estrategikoan militatu nahi nuen identifikatzea. Hala ere, esan beharra dago aurretik herri mailan, esparru txiki horietan izan zela nire lehenengo konpromisoa gazte elkartearekin, gazte errealtatearekin; Arbizu bezalako herri baten errealtateaz eta Sakana eskualdearenaz ere jabetzeaz, lehendabiziko hastapenak eman nituen eremu horretan. Horrek lagundu zidan benetan gero kontzientzia eta militatzerako orduan nola izan behar zen nire konpromisoa zehazten.

Nire hastapenak horrelakoak izan ziren, baina berehalaxe identifikatu nintzen eta pausoa eman nuen euskal nazional askatasun mugimenduan militatzeko eta lehenik Jarrai-n militatzen hasi nintzen. Jarrai koadro antolakunde bat izan zen, niretzako oso oso garrantzitsua, nire militantzian eta bertan koadro militante bat bihurtzeko aukera eman zidana. Konpromisoa zer zen eta militatzea zer zen jakitera eraman ninduen, baita militantzia mota horrekin identifikatzea ere, erabateko konpromisoa hartzeko.

Halaber, Jarrai-n militatzen nuen heinean, nire herriko mailan militatzen nuen Herri Batasunaren eta Amnistiaren aldeko mugimenduan. Egia da Arbizu herri txikia izanik, eta Sakana eremu handia baina herri txikiz osatua, gure militantzia beste herri batzuetara ere zabaltzen zela. Azken finean, lagundu egin dut AEK-n, Euskal Herrian Euskaraz-en, Eguzki-n, Askapena-n... Esan nahi dudana da herri mugimendua oso bizirik zegoela eta, nahiz eta koadro militante izan, nire konpromisoa herrian eta eskualdean herri mugimenduetara ere bideratzen zela, bat gehiago izanik.



Guzti honen ondorioz jabetu nintzen edo honek osotasun bat eman zidan gero militante iraultzaile bat izateko. Nire identifikazioa berdina izan zen ETA militararekin; bere estrategiarekin bat egin nuen 5 eta 6. Batzarretan hartutako erabakiekin, eta azkenean pausua eman nuen ETA-n militatzeko. Bestalde, esan behar dut HASI-ko militante koadro bat ere izan nintzela eta horren ondoren sartu nintzela ETA-n burubelarri militatzera. Hori 1996an izan zen.

Arrazoi horiek bultzatu ninduten militatzera, aurreko galderan azaldutako testuinguruak lagunduta, noski. Azken finean, testuinguruaz jabetzen zarenean ohartzen zara ezinbestekoa dela militatzea eta hori gradurik altuenean egitea. Hasiera hasieratik konturatu nintzen, beste militantzia motarik eduki gabe, nik hartu nuen konpromisorik gabe, desbideraketa ideologikoan eta erreformismoan amaituko genuela. Guk nahi genuena lortzeko bide bakarra zegoen: ETA-n militatzea, euskal nazio askatasun mugimenduko militantea izatea eta ETA-n militantzia politikoa eginez borroka armatua tresna bezala erabiltzea.

3. Zein da klandestinitatean diharduen militante iraultzailearen egunerokotasuna eta jarraitu beharreko diziplina?

Hasteko, esango nuke lehenengo gauza militante integral bat izatea dela, jabetzea zer den maila horretan militatzea. Zer den, zer suposatzen duen eta zer dakarren, horrek pertsona militantearen sena eta zutabeak sendoazten dituelako. Kontzienteki jabetzea militante iraultzailea zarela eta militantzia iraultzaile horrek dakarren konpromisoa; hau da, zer dagoen jokoan, zure pertsona kartzelara joan daitekeela, bidean gera daitekeela edo desager daitekeela. Dena delakoa izanda ere, jabetzea zein den zure ardura eta zure ardurapean zer jartzen duzun arriskuan, zer dagoen jokoan,

ez? Argi dagoena da pertsona militante horren gainetik kolektibitate handi bat dagoela, pertsona militante iraultzaileak direnak, eta zure ez jabetze horrek guzti hori kolokan eta arriskuan jar dezake.



Klandestinitatean diharduten militante iraultzaileen bizitza ez da erraza. Ez zara normal bizi, zure bizitza izan beharko litzatekeen egunerokotasuna utzi duzu. Familia, lagunak, herria atzean utzi dituzu eta ez bakarrik atzean, baizik eta zure inguruarekiko ia komunikazio guztia etenda. Askotan bakar-dade behartuak izaten dira eta behartuak esaten dudanean ez dut esaten obligazioz; egin behar den gauza bat izaten da, kontestua eta egoeraren arabera. Guzti horrek gabeziak ere sortzen ditu, pertsonak baikara eta pertsonak garen heinean sentimenduak baititugu. Gure behar emozionalak ere baditugu eta hori gestionatzea ez da erraza izaten. Urruntasuna sentitzen duzu, eta ez bakarrik

zure gertukoekiko, baita zu borrokatzen ari zaren herriarekiko, nazioarekiko. Sistema horren kontrako eta hori suntsitzeko eta eraldatzeko guzti horrek eramaten zaituen tokian egoteak urruntasun bat sortzen du. Egoera horretan garrantzitsua da Euskal Herriaren kutsua ez galtzea, gure kasuan gertatzen ari dena egunerokotasunean. Urruntasunak, pultsu hori galtzen baduzu, galtzera zaramatza, errealitate bat desbirtuatzera eta gero analisi zuzenik ez egitera, ez?

Ezinbestekoa da, nahiz eta urrun egon, zauden tokian egonik, lotura zuzen bat izatea zure herriaren errealitatearekin, kasu honetan, gure Euskal Herriaren errealitatearekin eta, guzti horretan, egunerokotasun horretan gertatzen ari denarekin, ez? Horrez gain, ezinbestekoa da zuk militatzen duzun erakunde horretan, nire kasuan ETA-n, konfiantza izatea. Konfiantza izatea zure kideengan eta tokatzen zaizun momentuan, zure arlo horretan, konfiantza mantenduz eta militante integral bat izanik tokatzen zaizuna egitea. Inolaz ere ez jakin-mina izatea, jakin nahi izatea beste militanteak zertan edo non dauden jakin-min hori izatea. Bakoitza bere esparruan kokatu behar da.

Jarraitu beharreko diziplinari dagokionez, lehendabizi autodiziplina sortu behar da. Bestela esanda, zu jabetzen zarenetik zein den zure papera koadro militante zaren heinean,

autodiziplina bat sortu behar da. Gorde beharreko ziurtasun neurri guztiak betetzera eraman behar zaitu horrek. Inor ez da libratzen akatsak egitetik, baina oso diziplinatua izan behar da militantea segurtasun neurri horiek ahal den hobekien eta osotasunean betetzeko. Beharrak egonda ere, arrazoiak sakonekoak eta larriak izanda ere, neurriak gorde behar dira. Eta momentuan egokitzen zaigun militante bezala jokatu beharreko paper horretan ere berdin, tokian toki egon behar da eta hori bete behar da. Hau ezinbestekoa da, horrela ez bada ematen, suertatu beharko ez liratekeen gauza asko eta asko gertatzen baitira. Eta jabetuko zareten bezala, militanteen gain erortzen da. Pertsona militante hori izan behar da lehenengotik inork esan gabe neurriak bete behar dituen. Ezin da izan zure antolakundea neurri horiek betetzera behartzen zaituen.

Azkenean, boluntario bat zara eta boluntarioa zaren heinean, egoera batzuk onartu dituzu. Baldintza batzuk eta erabaki batzuk zureak egiten dituzu, eta ez duzu aitzakiarik ez betetzeko. Horiek era boluntarioan hartu dituzunez, bete beharrekoak dira.

4. Zelan ulertzen zenuten borroka militarren eta politikoaren arteko uztarketa?

Borroka armatua beti izan da baliabide bat, borroka molde bat eta tresna bat; are gehiago, taktika iraultzailean helburu estrategikoak lortzerako bidean.

Nik uste dut zapalduok zilegitasuna dugula eta gehiago egin beharra gure eskura dauden tresna guztiak erabiltzeko, egoera hori gainditu eta iraultzearen. Hori dela eta, borroka armatua, borroka militarra politikoarekin uztartuta dago. Zapalketari aurre egiteko eta egoera iraultzeko zapalduok daukagun tresnarik eraginkorrena da, eta borroka tresna hori borroka politiko, estrategiko iraultzailean txertatu dago. Honen barnean dago. Ezingo litzateke borroka militar bat ulertu estrategia politiko iraultzailerik gabe.

Horrek borroka moldeen hausnarketara eta momentuan momentuko zuzenketak egitera garamatza. Garai horretan, era

naturalean ulertzen genuen. Orain ez bezala, batzuk arduratu direlako hori galdu dadin. Ez bakarrik ETA-k edo euskal nazio askatasun mugimenduak, Euskal Herriko zati handi batek ere ulertzen zuen borroka molde hori zilegia zela eta zilegi izaten jarraitzen duela, estrategia politiko iraultzaile hori txertatzeko, aurrera eramateko eta irabazi ahal izateko.

5. Zelan izan zen zure erorketa? Zer konta diezagukezu 1991ko urteaz?

1991ko abuztuaren 29an atxilotu ninduten, zaurituta atera nintzelarik eta, bidean, nire kidea zen Juan Mari Ormazabal, "Tturko", hernaniarra exekutatua izan zelarik. Gure gau hartako

enfrentamendua oso bortitza izan zen; bi aldeek tiroka bukatu genuen eta prozesu horretan eman zen bilakaeraren ondorioz, nire kidea zen "Tturko" exekutatu egin zuten eta ni hainbat tiroz zaurituta irten nintzen.

Gure talde legaleko kide batzuk erreta genituen; hau da, txakurragatik identifikatuta eta gordeta zeuden, toki seguru batean. Kontua da bi kide horiek zeuden tokitik atera zirela, diziplina falta bat eduki zutela eta egun horretan, ordu batzuk lehenago, beraien arteko senide batekin egotera joan ziren. Familia kontrolatuta zegoenez, horrek txakurrei jarraitzen hasteko bidea eman zien.

Etsaiaren aldetik, operatibo



osoaren baitan hainbat operatibo zeuden. Lehen aldia zen zuzenean zipaioek ETA erakundearen kontra jotzen zutena, eztabaidan zegoelarik momentu horretan polizia integrala izatearen gaia. Beraiek eskatu zuten operatibo hori zuzenean egitea eta operatibo horren baitan Madrilek, estatu espainolak, beste operatibo bat jarri zuen martxan. Hortaz, txakurra, guardia zibila, polizia nazionala eta zerbitzu sekretuko agenteek bigarren gune bat jarri zuten, badaezpada, zipaioena gainditu ahal izango bagenu, beraiek emateko operatibo horren exekutapena. Hala ere, kontuan izan behar da operatibo hori estatuko maila goreneko instituzioetatik, karguetatik eraman zela, Madriletik.

Esan beharra dago, inguratzen joan zitzaizkigun heinean, tirokatzen hasi zitzaizkigula. Atxilotu egin zituzten gurera etorritako bi kide horiek eta beste kide bat, zeinaren bidez iritsi ziren guregana. Guzti horiek eta Etxebarria parkeko kokapena Bilbon izanik, oso garbi zeukaten zein izan zitekeen irtenbiderik logikoena, guk txakurren zerko hori apurtzeko, eta, azken batean, bazuten agindua betetzeko; hau da, gu exekutatzeari.

Hala ere, esan behar da operatiboa ez zitzaizela guztiz ondo atera. Nire kidea, Tturko, exekutatu zuten baina ni bizirik atera nintzen, nahiz eta nire kidea hil ondoren inguratu eta azken tiro bat eman zidaten. Tiro hori buruan ordez gerrian

ematera behartu zituen kaleko jendearen presentziak. Hori da gure erorketari buruz lerro lodietan esan dezakedana, momentu horretan gordetzen ditudan detaile eta gauza asko oso garrantzitsuak badira ere gure erorketaren baitan.

Bestalde, 1991ko urteari dagokionez, militante bezala esan dezaket urte latza izan zela. Ez bakarrik 1991. urtea. Honen aurretik, beste kide eta talde batzuen erorketak egon ziren. Bata, 1989an. Arabako taldea Irungo bidesarian, kamioi batean Iparralderantz zihoalarik, tirokatu eta bi kide erail zituzten



eta bat atxilotu. Bigarrena, ni bere garaian bere parte eta kide izan nintzen Nafarroako taldea. 1990eko ekainaren 25ean, Irunberriko harrobietan inguratu ostean, Jon Lizarralde eta Susana Arregi exekutatu zituzten, torturatu ondoren, eta German Rubenatxi tiro bat eman zioten buruan, bizirik atera bazen ere.

1991. urteko maiatzean, berriz, Bartzelonan zegoen taldea erori zen. Bertan, Erezuma eta Monteagudo exekutatu zituzten eta kide bat atxilotu. Ondoren, abuztuan, Donostiako taldea erori zen, Morlansen, non 3

militanteak exekutatu zituzten. Horren ostean etorri zen, hilabete horretan bertan, Bizkaian, gure erorketa, Tturko erail eta ni zaurituta geratu nintzelarik. Udazken horretan, Bizkaian, Deustun, talde legal bati lehergailuak eztanda egin zion, eta Kabi hil egin zen eta beste kide bat zaurituta atera.

1990-91ko tarte horretan, 8 kide erail zituzten, exekutatu zituzten, eta bat hil zen lehergailu batek eztanda egin ziolako. Baina ez nuke nahi azpimarratu barik utzi Nafarroako, Arabako eta Bartzelonako taldeak eta talde legalaren erorketa, Kabi hil zen talde horren erorketa. Izan ere, ez zen izan etsaiaren efikazia polizialarengatik edo lanagatik, baizik eta gure ibilbide militantean konturatu gabe egiten ditugun akatsengatik.

Dena den, badaude 2 kasu oso esanguratsuak. Gure kide ziren militante batzuk militantzia horretaz ez jabetzearen ondorio izan ziren Morlansekoa eta gure erorketa. Ikusten den bezala eta ulertuko den bezala, ondorioak larriak izan ziren. Lehendabizi, gure militanteak exekutatuak, Morlansen 3 eta Bizkaian 1, eta bestea oso larri zaurituta. Bizkaian ez bezala, Donostian Morlanseko erorketan, kide liberatu horiek kontrolatzen zuten azpiegituraren erorketaren ondorioz, dozenaka pertsona kartzelara joan ziren eta beste batzuk ihesean jarri behar izan ziren.

Hau guztia suertatu zen, hor zeuden militante batzuek



benetan ez zutelako barneratuta zer zen ETA bezalako erakunde batean militatzea, zer zen koadro militante iraultzaile bat izatea eta zer zegoen benetan arriskuan. Guzti horrek ondorio latzetara eraman gintuen eta hori benetan azpimarratu nahi nuke. Izan ere, denborarekin eta perspektibarekin begiratuta, ematen du ahaztu dugula edo ahanzarazi digutela nondik eta nola etorri ziren erorketa horiek. Ez hori bakarrik baizik eta nolabait ere militante horiek sortutako indiziplinaren bidez, hau da, nik dena egin ahal izatearen eraginez etorritako ondorioak. Denboraz eta perspektibaz begiratuta,

militante izan ziren horiek eta aipatutako ondorioak eragin zituzten horiek, gaur egun, bere ibilbide guztian militante iraultzaile eta integralak izan balira bezala erabat txertaturik daude. Baina inola ere ez eta inondik ere ez. Egiatik urrun dago eta argi geratu behar da.

6. Azal diezagukezu azken hamarkadetako mugimendu iraultzaileen bilakaera era laburrean?

Analisi objektibo bat egin nahi izanez gero, puntu inflexio bat kokatzearren 1987, 1988 eta 1989an jarriko nuke, euskal nazional askatasun mugimenduaren barnean, gutxiengo

sektore bat zalantzan jartzen hasten denean euskal nazio askatasun mugimenduaren beraren antolatzeko modua eta ETA antolakunde iraultzailearen abangoardiaren paper politikoa.

1988an, HASI-ko kongresua inflexio puntu bat izan zen, bertan 18 militante kanporatuak izan behar baitziren. Honek krisi batean murgildu zuen KAS koordinadora, estrategia iraultzailearen diseinua zutabea zelarik. Hurrengo urteetan, KAS-en zeuden antolakunde ezberdinen disolbapena etorri zen, antolatzeko diseinu estrategiko berri batera bideratuz.

1980ko hamarkada hasiera horretan, beste aldaketa estrategiko bat izan zen euskal nazio askatasun mugimendutik Ezker Abertzalera pasatzera; hots, euskal nazio askatasun mugimendua izaera eta zentzu estrategikoan desagertzea Ezker Abertzalearen baitan, Ezker Abertzalearen alde. Argi esan behar da euskal nazional askatasun mugimenduaren barne zegoela Ezker Abertzalea, baina euskal nazional askatasun mugimendua are zabalagoa zela eta sektore askoz lauagoak barnebiltzen zituela. Ezker Abertzaleari lehen euskal nazional askatasun mugimenduak zuen paper hori ematen saiatzean, estrategia aldaketa horretan zeresan handia hartzen du Ezker Abertzaleak jokatzeko duen paperak.

Ondoren, 1994 aldera, Alternatiba demokratikoa aurkeztu zen, KAS alternatiba berritze aldera, baina zentzu erreformistak ikusten zitzaizkion. Horren ondoren, Lizarra-Garaziko prozesura iritsi ginen; hau da, Txibertan prozesu


negoziatzaile burutzen saiatu zen bigarren aldiz. Ordurako, beste aldaketa estrategiko bat eman zen euskal nazio askatasun mugimendua izan zen horretan eta orain Ezker Abertzalea deitzen den horren baitan: bi faseen arteko logikan murgiltzea, hau da, lehenengo independentzia eta gero sozialismoa. Guzti horren ondorioz, estrategia iraultzaile horretatik alde batera utzi zen sozialismoa, eta denborarekin independentzia ere autodeterminazio kontzeptura igaro zen eta, gero, autodeterminazio kontzeptutik erabakitzeke eskubidera. Bestela esanda, lehendabiziko fasean independentzia, gero autodeterminazioa, ondoren erabakitzeke eskubidea lortu eta bigarren fasean etorriko litzateke sozialismoa, edota Ezker Abertzaleak azken urte hauetan deitu izan duen ongizateko estatu hori. Behin Lizarra-Garaziko prozesuak huts eginda, Ezker Abertzalearen baitan krisi sakona ireki zen eta batasuna deituriko eztabaida prozesu bat bilatu zen. Hortik



jaio zen Batasuna Alderdia.

Batasuna Alderditik kanpo geratu ziren sektore sozial liberalagoak, Aralar adibidez. Era berean, behin batasuna prozesua itxita, beste fase bat hasi zen, Loiolako prozesuan murgildu zena. Prozesu horretara, estrategiarik gabeko Ezker Abertzale batekin eta isolatuta eta historikoki bere zorua eta zutabe soziala izan zen hori gabe zegoen ETA erakunde iraultzailearekin iritsi ginen; Ezker Abertzaleak paper bat jokatu zuen hori horrela suertatzeko.

Behin Loiolako prozesua amaituta, ETA erakunde iraultzaileak eztabaida prozesu bat ireki zuen. Guzti horretan militante guztiok parte hartu genuen. 2008-2009 artean eman zen eta 2009ko iraila aldera egin ziren publiko emaitzak. Militanteen % 81,81ek erabaki genuen estrategia militararekin jarraitzea. Baina Ezker Abertzalearen baitan, ETA-ren erabakiari muzin eginda, 2009ko azaroaren 14an



Altsasuko Mahaia deiturikoan, non Ezker Abertzaleko militante esanguratsuak agertzen ziren, amaitutzat eman zuten ETA erakunde armatuaren, ETA erakunde politikoaren ibilbidea. Hor desagertu zen European geratzen zen erakunde iraultzaile bakarra.

Hortik aurrera, Ezker Abertzaleak Argituz txostenarekin, ondoren Zutik Euskal Herria deitu zena, fase berri bat ireki zuen, estrategia iraultzaileari bizkarra emanda eta bira oso bat emanda. Hor SORTU alderdia osatu zen. Bere estatutuetan biolentziaren erabilera gaitzes-ten zuen, nahiz eta defentsarako biolentzia izan estatuen eta imperialismoaren errepresioaren

kontra aurre egin ahal izateko.

Kontestu horretan, Ezker Abertzale erreformista berri horrek beste prozesu bat jarri zuen martxan berriro: Abian. Bertan Zutik Euskal Herriaren ibilbide eta estrategia berrian sakontzen zen. Guzti horren eraginez, militante iraultzaile asko eta asko antolakuntzarik eta markorik gabe geratu ziren. Militatzeko eta estrategia aldaketa horrekin bat egiten ez zuten militante guzti horiek, modu batera edo bestera, eztabaida bat irekitzen saiatu ziren, prozesu berri bat martxan hasteko eta antolakuntza markoak antolatzen hasteko. Dena den, barne militanteen arteko sektarismoak, protago-

nismo nahiak eta ikuspuntu kontrajarriek guzti horrek birfundazio prozesu batean bukatzea galarazi zuten. Egoera horretan, izaera ideologikoko eta estatuarekiko konfrontazioa ulertzeko aldaketa eman zuen Ezker Abertzaleak. Horrenbestez, Euskal Herri Langilea eta militanteak kalean geratu ziren, militatzeko inolako markorik gabe eta instituziotik kanpo antolatzeko espaziorik gabe.

Horrez geroztik, sektore ezberdinen artean prozesu bat ireki da. Hortik bi ildo ezberdin eratu dira, gaur egun, instituzioetatik kanpo antolatzeko marko antolakundeak sortzen direlarik. Baina batzuen sektarismoak, taktikoki bada ere, lan aman-





komun bat egitea galarazten du. Hau da, pixka bat laburbilduta, azken hamarkadetako ibilbidea eta mugimendu iraultzailearen bilakaera.

7. Zer irakurketa egiten duzu Euskal Herri Langileak jasotako errepresioaren bilakaeraz?

Uste dut lehendabizi kontestuan sartu beharko ginatekeela. Aipatu beharra dago ETA erakunde iraultzailearen eta bere militante zenaren, Argalaren, eskutik Euskal Herrian lehen aldiz egin zen Euskal Herri Langilearen teorizazioa, garai hartan Pueblo Trabajador Vasco deiturikoa; zeintzuk osatzen zuten eta zer definizio iraultzaile ematen zitzaion kontzeptu horri. ETA-k V. eta VI. Batzarretan egindako ekarpen estrategikoak dimentsio berri bat eman zien Euskal Herrian antolatzen ari zen eta eramaten ari zen borroka iraultzaileari.

Guzti horrek hurrengo urte eta pare bat hamarkadetan kontestua eta testua eman zien Euskal Herri Langileari borroka estrategikoan, politikoa nahiz estrategiko sektorialetan antolatzeko. Baita aurrera egiteko jasaten dituen baldintzei ere, bai estatu zapaltzaileen aldetik - frantziar eta espainiar estatuak -, bai kapitalismoaren aldetik. Egia da Argalaren exekutapenak, Argalaren erailketak, Euskal Herri Langile horren definizioaren eta bilakaeraren teorizazioa bere horretan utzi zituela. Hurrengo urte eta hamarkadetan ez zen sakondu Argalak egindako ekarpen teoriko estrategiko horretan. Horrek, denbora pasa ahala, gabeziak azalarazi zituen. Izan ere, teorizazio horretan ez zen garapen bat eman, errepresioak eta sistemaren aldetik pairatutako zapalkuntzak sortutako baldintza berri horiei aurre egin ahal izateko.

Nik uste dut 1989., 1989. eta 1990. urteen artean, euskal nazio askatasun mugimenduaren estrategia iraultzailea batzuen aldetik zalantzan eta kuestionatzen hasteak, Euskal Herri Langilea ere mundu horretan krisi batean murgilarazi zuela. Izan ere, behin KAS koordinadora disolbatuta eta LAB klase sindikatua estrategia iraultzaile horretatik kanpo utzita, bide eman zieten erreformismoari eta sozialdemokraziari. Bide horretan, LAB-ek klase sindikatu izateari utzi zion eta zerbitzuen sindikatu bat izatera igaro zen, nolabait esatearren.

Gauzak horrela, ezin daiteke ahaztu kontestu internazionala eta munduan ematen den kontestu berria. Guzti honek bi estatu zapaltzaileen eta sistema kapitalismoaren aldetik jasan-dako errepresioa are eta finagoa bihurtarazi zuen. Jada ez zen



bakarrik mobilizazioak eta greba orokorrak erreprimitzea, baita Euskal klase langileriaren zatiketa eta banaketa hauspotzea ere. 90eko hamarkadara arte, Euskal Herri Langileak antolatzeke marko bat izan zuen. Oso indartsua eta kontzientziadun langileria zen, behintzat bere parametro nagusietan. 90eko hamarkadatik aurrera, ordea, politika keynesiarra, erreformismoa, sozialneoliberalismoa, sozialdemokrazia... sistemaren instrumentu izanda, sistema baliatu zen klase langileriaren aurkako errepresio hori areagotzeko.

Zer esanik ez, Ezker Abertzalearen aldetik klase langilearekiko eta sozialismoarekiko engaiamendua albo batera uzten hasi zenean. Hurrengo hamarkadetan, 1990. eta 2000. urteko hamarkada horietan, klase langileria konpromisoa galtzen hasi zen. Subjektu politiko bat izateari utzi zion, subjektu politiko erradikala izateari. Koordinazio borroka guztiak galdu zituen, dinamika nazionalak galdu zituen, kohesioa galdu zuen eta sekta-

rismoa areagotu zen. Horrez gain, errepresioa zegoen, ez bakarrik kaleetako errepresio poliziala eta militarra. Errepresio ekonomikoa ere bazegoen, lantokien tokian tokiko errepresioa, kanporaketak. Poliziak ofentsiba andana eraman zuen aurrera Euskal Herri Langileak desegin eta iparririk gabe uzteko.

Horrenbestez, aurretik existitzen ziren antolakuntza eta komunizazio bide natural guztiak gainbeheran sartu ziren. Konfrontazioa albo batera utzi zen eta borroka sektorialetan ere patronalarekin negoziatzera eta akordioetara bideratu ziren mobilizazio edo planteamendu guztiak. Horrek desmobilizazioa ekarri zuen, baita alienazioa ere. Borroka sektorialen arteko lotura ere apurtzen joan zen.

Azken finean, guzti horrek hutsune bat sortu zuen, eta desmobilizaziora, alienaziora, ez antolatzeke, klase ikuspuntua galtzeke eta gabezia guztietan sakontzeke eraman zuen Euskal Herriko klase langileria egoera horrek. Izan ere, Euskal Herrian

sistema kapitalistaren aurkako parametro iraultzaileak desagertu egin ziren eta markorik gabe geratu ziren. Errepresioa areagotu zen era ezberdinetan.

Langile klasea bananduta, alienazioaren bidez langile klaseari klase ertaina zela sinetsarazi zitzaion, inoiz existitu ez bada ere. Klase ertaina zirenen ustea barneratzeko, langileriak sinetsi behar zuen ez zirela langileak eta beste estatu sozial baten baitan zeudela. Eta horrek bizitzari edo estatu sozialari zegokien onurak zekartzan. Ez ziren iristen aberatsen parekoak izatera, baina klase ertain horrek lor dezakeena bere jabegoan, nahiz eta bankuen hipoteken baitan egon txaleta, oporra... Bere soldatapeko lanaren gainetik dagoen maila, hipoteken bidez lor dezakeen bizitzeko maila.

Baina konturatu gabe, azkenean sistema berak behin sabaia joz gero, errealtatera itzularazten zaituela bere krisi zikloekin. Euskal Herri Langileak, langile izan arren, kontzientzia hori galdu du, erreferente iraultzaile baten faltaren eraginez eta sistema kapitalistak baliatutako errepresioaren eraginez, bere soldatapeko lanaren gainetik dagoela sinestearen eta horrela bizitzearen eraginez, esklaboa bihurtuz, sistemaren banku eta sistemaren eskuetan erortzearen eraginez. Eta gaur, 2022. urtean, euskal klase langilea egon badago, baina alienatua, kontzientziarik gabe eta bere klase langilearen jabe edo horren kontziente izaten jarraitu gabe.


8. Espetxean ere borrokak darrai, zer konta diezagukezu horretaz? Urteak joan ahala, zelan mantentzen da borrokarako grina?

Espetxea beste fronte bat gehiago da, estrategia iraultzailean txertatuta joan behar dena. Nire ustez, bere bilakaerak ez luke eduki behar estrategia iraultzailearen baitan baldintzatzeko gaitasunik edota strategiaren gainetik jartzeko inolako indar edo eskubiderik.

Gutxi gorabehera, 80ko hamarkadatik aurrera, hori gertatzen hasi zen eta horrek gerora asko baldintzatu eta hipotekatu zuen estrategia iraultzailea. EPPK kolektibori ere funtsezkoa zen aldaketa bat eman nahi zitzaien, betiere, estrategia iraultzaile hori baldintzatzen hasteko. ETA-ko militante iraultzaileen kolektibo izatetik beste antolakunde ez iraultzaile ziren partaideei ere sarrera ematean zetzan aldaketa hori. Hau garrantzitsua da ulertzeko EPPK-k hartutako norabidea eta izan duen bilakaera. Ezinbestekoa da ulertzea EPPK-k emandako borroka baldintzatuta zegoela, antolakunde ezberdinetako horiek ez zutelako ETA-ko militanteek zuten konpromiso maila. Esan nahi dudana da, espetxean zeuden preso politiko horiek estrategia iraultzaile barruan kolektiboaren baitan antolatu zitezkeen borroka moldeak baldintzatzen zituztela.

Baina bai, espetxean borrokak jarraitzen du. Nik bi arlo ezberdinduko nituzke. Bata, estrategia iraultzailearen harira

antolatutako borrokak. Bigarrena, militantziaren aldarrikapena, preso politikoaren izaerarekin eta guzti horrekin lotuta dauden borrokak, izaera horri lotuta doazen eskubideen borrokak. Urteak pasatzen dira eta horrek eragina duenik ezin ukatu, baina borrokarako grina mantentzea ezinbestekoa da eta hori militante iraultzailea izanik lortzen da.



Gorabeherak izaten dira, noski, baina 3. galderako erantzunak espetxerako ere balio dute: autodiziplina, burkideen arteko elkartasuna, erakundearen parte eta euskal nazio askatasunaren parte zarela presente izatea era aktiboan, ezinbestekoa da konpromiso hori mantentzea militante zarela sentituz, konfiantza, zintzotasuna, gardenetasuna... Nik uste dut guzti hori ezinbestekoa dela borroka grina hori irmo mantentzeko, eta garrantzitsua da sentitzea ere, laguntzen jakitea, laguntza ematea eta laguntzen uztea.

Espetxean ez dago atsedunik, une oro daukazu etsaia zurekin, aurrez aurre, eta etsaia ez dago gu laguntzeko, gu suntsitzeko baizik. Batzuetan otso aurpegia izaten du eta beste batzuetan onarena, bere aldera edo berera eramateko saiatzeko, ez? Eta

norbere baitan doa etsaiak eraman nahi zaituen tokira eraman ahal izatea. Beraien aldera eramaten saiatuko dira eta hori helburu baten barruan doa: kolektiboan pitzadura sortzea mugimendu iraultzaile guztietan eragiteko eta porrotera bideratzeko, ez bakarrik zuri militante bezala, baizik eta zu antolakunde iraultzaile bateko militante zaren heinean, baita antolakunde horri ere, gure kasuan euskal nazio askatasun mugimendua.

Behin etsaiari bide ematen badiozu edo pertsonalki eskaintzen dizkizun onura horiek "onartzen" badituzu, gehiago eskatuko dizu. Eta zure egoismo pertsonal hori militantzia gaitzen hasten bada, zalantzan jartzen hasten zara zure militantzia bera eta borrokara eraman zaituzten arrazoiak. Hori guztia berehalaxe nabaritzen da. Izan ere, zure praktika politiko eta militante horretan eragiten hasten da, eta preso politikoaren izaeraren duintasunerako borrokei ñabardurak eta oztopoak jartzen hasten zara. Oztopoak, ñabardurak, aitzakiak gehitzen joaten dira, bata bestearen atzetik, zure egoismo horren eraginez "zure onura" pertsonal horiek guztiaren gainetik jartzen hasten zarelako, pertsonala kolektiboaren gainetik jarritz eta horrek normalean ez du atzera bueltarik.


Horregatik, ezinbestekoa da kaleko pultsu hori mantentzea, zure militantzia kanpotik barrura eta barrutik kanpora elikatzea. Hasieratik jakitea espetxean

momentu oro, egunak egun, egunero dela borroka bat eta estrategia iraultzaile hori espe-
txeko egunerokotasun horretan
txertatu behar duzu, etsaiari
aurre egiteko eta borroka grina
hori irmo mantentzeko.

9. Zeintzuk izan behar dira mugimendu iraultzailea elikatzeko oinarrizko eginbeharrak?

Kontuan izan beharra dago
nondik gatozen, zer testuin-
gurutik gatozen eta argi eduki
behar dugu Ezker Abertzaleak
eman duen estrategia aldaketak
suposatu duen guztia. Egoera
horretan, militantzia eta mili-
tante iraultzaileak, baita herri
langilea ere, antolatze marko-
rik gabe geratu ziren eta horrek
desideologizazioa eta trans-
misioa etetearen ondoriozko
hutsune galanta ekarri zituen,
ez?

Hutsuneak hutsune, orain nik
uste dut oinarrizko eginbeharrak
direla lehendabizi konpromisoa
elikatzea eta formakuntza nahiz
ideologizazioa sustatzea; berriro
ere kontzientzia nazionala eta
klase kontzientzia, zapalduak
garen kontzientzia hori aliena-
ziotik ateratzeko, eta horretarako
ezinbestekoa da formakuntza
politikoa izatea. Horrez gain,
oinarrizko eginbeharretako bat
da dinamika nazionalak eratzea,
berriro ere nazio eta klase
perspektiba horren kontzientzia
piztu eta hori berreskuratze-
ko. Kohesioa eta batasuna ere
ezinbestekoak dira edozein
zapalkuntzari aurre egiteko eta,
gure kasuan, bi estaturi eta



kapitalismo zapaltzaileari aurre
egiteko eta konfrontazioa fase
bat emateko, ezinbestekoa da
elkarren arteko kohesio hori eta
batasuna. Beti ere, zintzotasun-
etik, gardentasunetik eta apalta-
sunetik.

Guzti hori ezinbestekoa da
gatozen estrategia aldaketaren
fase horretan, non atomizazio
bat eman den eta atomizazio
horren baitan sektarismo itzela
sortu den. Ezinbestekoa da hori
gainditzea oinarrizko eginbe-
harrak izatea. Bide horretan, alter-
natiba iraultzaile bat osatzeko
eta aurrera eraman ahal izateko
baldintzak sortu behar dira.
Azken aldi honetan, alternatiba
iraultzaile hori eraikitze zelaia
edo markoa ezarri da, nire iritzi
xumean JARDUN izango litzate-
keena. Ezinbestekoa da ulertzea
konfrontazio fase berri horretara
pasatzeko edo eraikitzen haste-
ko perspektiba luzera izan behar
dela. Lana luzerako izan behar
da eta horrek askotan pazientzia
eta konfiantza izatea eskatzen
du, egunerokotasun horretan
borrokaren eta konpromisoaren
grina mantentzeko.

Bestalde, kontuan izan behar da
Euskal Herrian klase langileria,
Euskal Herria delako markoa,
alienatuagoa, indibidualistagoa
eta berekoiagoa egin duela sis-
tema kapitalistak; lehiakortasun
depredatzaile batean sartu
dutelarik Euskal Herri Langile
hori. Orduan, kontzientzia susta-
tu behar da klase langilerian
erradikalizaziorantz joanez. Ho-
rrez gain, egunerokotasuneko
arazoei eta arazo sektorialeiei ere
bide eman behar zaiela deritzot.
Kontuan izan behar direla,
erantzunak eman behar zaizkiela
eta tresnak sortu behar direla,
Euskal Herri Langilearentzako
alternatiba horri integritasuna
emanez eta, horrela, prozesu
iraultzailea elikatuz.

Ez hori bakarrik. Nire iritzi
xumean, estatu eta sistema
kapitalista zapaltzaile horren
hegemonia borrokatu behar da
kalean eta era diskurtsiboan.
Zalantzan eta muturrean jarri
behar dugu beraien izaera hori
eta beraiek, bi estatu zapaltzaile
horiek, eta sistema kapitalistak
berak zapalkuntza horrekin

lortzen duten alienazioa eta sistemarekiko menpekotasuna. Hortaz, modu hegemoniko bat lortu behar da, gutxienez, bi esparru horien baitan.

Oso garrantzitsua iruditzen zait militantzia iraultzaileak jakitea, konturatzea eta jabetzea Euskal Herrian zer joko-zelai eta zer baldintza objektibo eta subjektibo dauden. Nire ustez, borroka iraultzaile bat aurrera eramateko baldintza objektibo guztiak daude, eta baldintza subjektiboak berriro ere kontzientzia elikatuz joan behar dira sortzen. Gaur egun, iraganeko borrokatik ikasiz ere, kontziente izan behar dugu fase berri bat irekitzen ari dela eta fase berri horretarako ezinbestekoak direla momentu momentuko egoeraz jabetzea, eta aurrera egiteko zer tresna dugun ikustea, begiratzuz zer tresna dugun eta zer behar dugun tresnak sortzen joan ahal izateko.

Horretarako, lehen esan dudana bezala, ezinbestekoa da apaltasunez, sinesgarritasunez eta gardentasunez jokatzeko, baita jabetzea momentu zail asko egongo direla ere.

Gorabehera asko izango dira, baina borroka grina mantentzen bada, konpromisoa mantentzen bada eta militantzia konpromiso integral horretaz jabetzen bagara, gai izanik emateko bakoitzak dugun guztia, gai izango gara prozesu gradual batean alternatiba iraultzaile hori eta alternatiba iraultzailearen bidez borroka aurrera eraman eta garaile izateko.

10. Nola ikusten duzu egungo gudu-zelaia eta mugimendu iraultzaileak aurrera eraman beharreko borroka?

Gudu-zelaian, esan bezala, baldintza objektiboak hor daude eta hori begi bistakoa da. Baldintza subjektiboak dira sortu behar direnak; hau da, konfrontazioa fase berri horretara pasatzeko edo pasatzen ari garenerako tresnak sortu behar dira. Hori Euskal Herri Langileak kontraboterea lortzetik igarotzen da, gero borroka sektorial guzti horiek estrategia alternatibo-rantz batu ahal izateko eta estrategia alternatiba elikatzeke. Beraz, aurreko parametro iraultzailea amaitutzat emanik eta estrategia aldaketa horrek sortu

duen antolatze markorik gabe utzita, egun dugun zelaia antolakuntza marko berriak sortzen hastean datza.

Nik uste dut fase hori jada martxan dagoela Euskal Herrian eta kontestu berri bat sortu dela Euskal Herrian. Testuinguru internazionalan geoestrategia poloak aldatzen hasi direnez ere, horrek beste gudu-zelai bat irekitzera darama mundua. Azkenean, ezinbestekoa da gure gudu-zelaia ulertzeko geoestrategia mundiala ere ulertzea, kontestu horren barruan sartzen baita gure herri, nazio txiki hau.

Mugimendu iraultzaileak aurrera eraman beharreko borrokari dagokionez, nik aurretik gauza bat utzi nahiko nuke argi. Antolakunde markoa zein izan behar den, alegia, eta antolakunde markoa guretzat Euskal Herria izan behar da. Hor eman behar da prozesu iraultzaile hori, Euskal Herrian borrokatu eta Euskal Herria independente eta sozialista eginez. Hori ezinbestekoa da gaur egungo gudu-zelai berri honetan.

Nik hainbat puntu identifikatuko





nituzke, minimo bezala, Euskal Herrian sortu beharko liratekeen baldintzak eta alternatiba iraultzaile hori irekitzeko bidean.

Lehenik, independentzia eta nazio askapena. Nik uste dut gainera argi utzi behar dela nazio auzia klase perspektiba batetik eman behar dela. Ezin gara erori aurreko prozesu iraultzailean, 1994tik aurrera bezala; hau da, ez da izan behar bi faseko prozesua. Nazio askapena eta klase askapena batera doaz eta ezinezkoa da aurrera egitea bata bestea gabe.

Bigarrenik, sozialismoa eta klase gatazkaren gaindipena, labur esanez, ekoizpen baliabideak langileen eskuetan jarritz.

Beste bat internazionalismoa izan behar da. Euskal Herrian

internazionalismoa beti jorratu izan dugu eta internazionalismo langile proletalgora oinarri izanik, horretan ezinbestekoa da nazioen subiranotasuna eta autodeterminazioa babestu eta lantzea; hots, ezin da zalantzan jarri Euskal Herri Langilearen esparru nazionala eta Euskal Herria nazio izatea. Internazionalismo horretan ezinbesteko baldintza izan behar da.

Beste puntu bat, noski, klase feminismoa da. Labur esanik, emakume langilearen zapalkuntzari erantzunak eman behar zaizkio.

Beste bat amnistia da. Baina ez amnistia Euskal Herrian azken hamarkadetan ulertu den bezala, baizik eta hasieran aldarrikatu zen bezala berreskuratuz. Ez bakarrik errepresaliatuak edo

preso, iheslari edo gatazkaren ondorioz kalteak jasan dituzten militante horien askatasuna. Gizartean aldaketa erradikal bat suposatu behar du eta horrela ulertu behar dugu.

Beste puntu bat, ia ezinbestekoa bihurtu dena ikusita zein den gure lurraren, ama lurraren egoera ekologismoa da, klase langileen perspektibatik begiratu noski. Laburbilduta, kapitalismoak planteatzen duen ekoizpen moduen aurkako borroka eta baliabideen sozializazioa, guztientzat baliabideak banatzean datza.

Beste puntu bat, garrantzitsua, borroken arteko lotura dugu. Azken hamarkadetan borroka sektorialen arteko loturarik ez da egon, modu isolatuetan ulertu dira gaiak eta borrokatu beharrekoak. Hori ezin da gertatu berriro; beraz, borroka horien arteko elkarlotura ezinbestekoa da alternatiba iraultzailea elikatze eta alternatiba iraultzaile horrek aurrera egiteko.

Eta, noski, guzti hori historikoki Euskal Herriaren helburu estrategikoekin lotuta doa, inoizko gaurkotasan handiena dutenak: estatu independente eta sozialista eraikitzea, Euskal Herri Langilearen boterearen klase gatazka gainditzea produkzio baliabideen sozializazioarekin, emakume langileen zapalkuntza forma guztien gainditzea, Euskal Herri birbatua, hau da, zazpi lurraldeen batuketa eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea.



Jarki

INDEPENDENTZIA · SOZIALISMOA



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com